


2012-2017

aldian
Tolosa-Goierriko
Osasun Publikoko
Eskualdean egindako

Ttipi-Ttapa

esperientziaren
ebaluazioa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Egileak

- Maria Blanco, Arantxa Uranga Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariorde
- Nagore Errasti, Carmen Virto Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdea
- Janire Ajuriagojeaskoa Debagoiena-Debabarreneko Osasun Publikoko Eskualdea
- Sebas Gartzarena Ordiziako Osasun Zentroa, Goierri-Urola Garaiko ESI, Osakidetza
- Carlos Calderon Altza Osasun Zentroa, Donostiako ESI, Osakidetza

Lan hau 2017 eta 2019 bitartean egin da, gogoeta-prozesu baten ostean, diziplina anitzeko ikerketa-/ikaskuntza-esperientzia baten testuinguruan, azterlaneko faseetako bakoitzean. Eskerrak eman nahi dizkiogu Carlos Calderoni, prozesu osoan zehar izandako dedikazioagatik eta egindako ekarpenengatik.

Egileok eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Ttipi-Ttapa parte-hartzaile guztiei, boluntarioei eta herri-elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak, haiek gabe ezin izango genukeelako azterlan hau egin.

Halaber, aitortza berezia egin nahi diogu Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdeko koordinatzaileari, Tomas Plazaolari, Ttipi-Ttapa esperientziaren sustatzaile sutsu eta ebaluazio-ikerketa honen abiarazle izateagatik.

Finantzaketa

Ikerketa-proiekturako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren laguntza ekonomikoa jaso genuen, 18BU610 zk. «Bottom-up 2018» deialdiaren barnean, Goierri-Urola Garaiko ESIk eskatuta.



Argitaraldia: 1.a, 2021ko urtarrila* • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila • Internet: www.euskadi.eus • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz) • Maketazioa: EkipoPO.

*Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>.

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Metodoak	8
Emaidza kuantitatiboak	10
Emaidza kualitatiboak	12
1. Jarduera fisikoaz harago	14
1.1. Aktibitate fisikoa eta are gehiago	14
2. Barne-antolaketa	23
2.1. Proiektuaren ibilbidea eta estrategiak	23
2.2. Bereztasun komunak	33
2.3. Pertsonen garrantzia	40
2.4. Ttipi-ttapa eta Osasun Publikoa	41
3. Lankidetzeta-gakoak eta etorkizunerako erronkak	45
3.1. Sareen garrantzia	45
3.2. Parte-hartzearen zenbait gako	47
3.3. Etorkizunerako erronkak	52
Eztabaida	57
1. Esperientzia arrakastatsu baten baieztapena	57
2. Partekatzeko irakaskuntza batzuk	57
2.1. Dimentsio anitzeko osasun komunitarioa	57
2.2. Parte-hartze komunitarioa eta aniztasun funtzionaleko pertsonen eta migratzaileen gizarteratzea	58
2.3. Gazteen parte-hartzea eta belaunaldi arteko loturak nagusiekin	58
2.4. Pertsonen garrantzia eta lankidetzeta eta laguntza boluntarioko jarreraren garrantzia	59

2.5.	Tokiko berezitasunetara eta pertsonen gaitasunetara eta prestasunera irekitzea, egokitzea eta malgutasunez jokatzera	59
2.6.	Funtzionatzen eta aurrera egiten duenaren zirkulu mesedegarria	60
2.7.	Erakunde arteko koordinazioa eta herritarren autonomia errespetatzea	60
3.	Hobekuntza-erronkak	61
3.1.	Ariketa fisikoaz eta haren proiektio publikoaz harago sortutako «dimensio osasungarri» berriei buruz gogoeta egiteko beharra	61
3.2.	Osasun komunitarioa sendotzea, erakunde-mailako eta erakunde arteko mailako epe luzeko estrategia dinamiko gisa	61
3.3.	Parte hartzen duten boluntarioen, profesionalen eta eragileen lan komunitarioaren aitortza eta ordezkartza handiagoa	62
	Ondorioak	63
	Bibliografia.....	64

SARRERA

2011n, Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzak (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila) Ttipi-Ttapa programa sustatu zuen bere 4 eskualdeetatik, ibiltarientzako ibilbideak dinamizatzeko proiektu eta komunitatearen osasuna sustatzeko estrategia gisa, udalerriko hainbat eragile inplikatzeko eta komunitatearen parte-hartzea sustatzeko bete-beteko helburuarekin. Alabaina, komunitateko eragileek gero eta protagonismo handiagoa hartu dute, eta Ttipi-Ttapa proiektua eraldatuz joan da, osasuna bere dimentsio guztietan sustatzen duen proiektu bihurtu arte. Izan ere, helburuak eta esku hartzeko esparruak zabaltzen joan dira, inplizituki; gizarte-kohesioa, desgaitasun funtzionala duten pertsonen eta migratzaileen gizarteratzea, belaunaldien arteko lana eta abar ere programaren helburu bihurtu dira.

Hori horrela, Ottawako Gutunean jasotako osasunaren sustapenerako lehentasunezko 5 ildo estrategikoen artetik, komunitate-ekintza sendotzearen testuinguruan kokatzen da Ttipi-Ttapa programa.

Zehazki, programaren xede dira EAEko Osasun Planean 2013-2020 (1) jasotako honako helburu hauek:

- **1.2. helburua.** Euskadiko Osasun Sistemaren ekitatea indartzea.
 - 1.2.6 ekintza. Osasunean komunitateko ekintza garatu eta sustatzea, biztanleriaren osasunaren gaineko esku-hartzeen bidez, tokiko agente guztien partaidetza eta protagonismoarekin.
- **3.1. helburua.** Zahartze aktiboa: Adinekoen zahartze aktiboa eta autonomia sustatzea, osasuna, bere baldintzatzaileak, tokiko eremua eta sektore arteko jokaera partaidea komunitate-mailan lantzen direla lehenetsiz.

Programaren barnean, xede nagusia da komunitatea sendotzea, jarduera fisikorik egiteko ohiturarik ez duten pertsonak animatuz, eta arreta berezia jarriz kolektibo zaugarrienen parte-hartzean. Helburu hori lortzeko jarduera nagusi gisa, ariketa fisikoa egiten da, astero irteerak eginez taldean. Ibilbide errazak diseinatzen dira, eremu lauetan, eta hirigunean bertan. Edonola ere, zailtasun handiagoko ibilbide batzuk ere diseinatu izan dira. Ibilaldien amaieran hamaiketako bat egin ohi da, eta parte-hartzaileen arteko sozializazioari bide ematen dio horrek. Asteroko irteerez gainera, sortzen den prozesu komunitarioak hitzaldiak eta/edo prestakuntza-tailerrak antolatzeak aukera ematen du, hala nola erorikoak prebenitzeko tailerra, udalerrria hobeto ezagutzeko ibilaldi gidatuak eta beste zenbait jarduera (bazkariak, antzerkiak, olinpiadak, jaialdiak, etab.). Horren guztiaren bidez, lehen aipatutako helburuei eta esku hartzeko esparruei erantzuten die proiektuak.

Proiektua osasun publikoko eskualdeen bidez sustatzen da, haien ohiko lanean eta beren baliabideak baliatuz. Hasteko, sustapen-taldea eratzen da, udaleko, osasun-zentroko eta osasun publikoaren alorreko ordezkariak osatua. Behin parte hartzeko konpromisoa hartu dutenean, udalerriko elkarte eta talde garrantzitsuenak identifikatzen dira, eta haiekin harremanetan jartzen gara, proiektuan parte har dezaten, eta talde dinamizatzaileko kide izan daitezten. Proiektua abiarazi zenean, eragileen mapaketa egitean, zuzenean edo zeharka pertsona nagusiekin lotutako eragileetan jarri zen fokua; elkarte formaletan eta informaletan bereziki, hala nola erretiratuen elkarteetan, zaharren egoitzetan, eguneko zentroetan, odol-emaileen elkarteetan, Nagusilan elkarteetan, Caritas elkarteetan, emakumeen elkarteetan, Elizan, elikagaien bankuan, Gurutze Gorrian eta DYAn. Alabaina, mapaketa komunitate osora zabaltzeko zenean, eragile komunitario berriak sartu ziren proiektuan, eta proiektuaren beraren

bilakaera ekarri du horrek. Honako eragile berri hauek sartu dira, besteak beste: Desgaitasun intelektuala duten helduen arretarako eguneko zentroak (Garagune), migratzaileekin lan egiten duten taldeak, salerosleen eta ostalarien elkarteak eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Ildo horretatik, hasiera batean pertsona nagusiei zuzenduta zegoen proiektu bat komunitate osora irekitzeak onurak dakartza komunitate osoaren osasunerako (2).

Prozesu partizipatibo baten bidez, Ttipi-Ttapa proiektuaren egiturazko elementu hauek ari da lantzen talde dinamizatzailea: proiektuaren izena, gaitasun-maila desberdinetarako egokiak diren ibilbide seguruak diseinatzea, irteeren egutegiak eta arduradunak, ibilbide-amaierarako hamaiketakoa, ekimena ezagutarazteko estrategia, eguraldi txarra izanez gero egiteko beste aukera batzuk, jarduera osagarriak, ebaluazio-bilerak, etab.

Egiaztatuta dago pertsona nagusien artean jarduera fisikoa sustatzeko ondorio positiboak dituela (3-5), baina jakina da, orobat, zaila dela hori ezartzea, ebaluatzea eta iraunkorra izatea. Komunitatearen parte-hartzearen garrantzia, haren eraginak neurtzeko zailtasunak, eragileak askotarikoak izatea eta esku-hartzeen jarraitutasunean eragiten duten mehatxuak aipatzen dira arazo gisa, besteak beste, arlo honetako literaturan (6-8). Arazo eta erronka horiek berdin sortzen dira ibiltzea sustatzeko eta ibilbide osagarriak diseinatzeko nazioarteko, nazioko eta tokiko estrategietan ere (9-11). Oro har, eragile askoren esku-hartze aktiboa lortzea gomendatzen da, eta, bereziki, parte hartzen duen populazioarena (12-14), eta ekimeneen zailtasunaren arabera ebaluazio-metodologiak gauzatzea (15, 16); baina horrelako esperientziak urriak dira, eta epe motzekoak gehienak.

Gaur egun, Ttipi-Ttapa gizarte-fenomeno bihurtu da, eta Gipuzkoako hainbat udalerritara hedatu da. Zehazki, garrantzi handia hartu du Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdean (TGOPE), eta bilakaera hori Gipuzkoan tokiko esparruan osasuna sustatzeko estrategia bihurtu da.

2019ko abenduan, Ttipi-Ttapa Gipuzkoako 32 udalerritan ari da gauzatzen (1. irudia). Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdeari dagokionez, 2012 eta 2019 artean, 21 udalerritan abiarazi da ekimena, eta 900 ibiltaritik gora biltzen ditu astero eskualdean (1. taula).



1. irudia. Ttipi-Ttapa abiarazi duten Gipuzkoako udalerriak, Osasun Publikoko Eskualdeka (OPE) berezita.

1 taula. Ttipi-Ttapa ezarri duten Tolosa-Goierri eskualdeko udalerrien ezaugarriak: proiektuaren hasiera-urtea, proiektuari jarritako izena, parte-hartzaileen kopurua eta udalerrian bizi den 65 urtetik gorakoen ehunekoa, biztanleria osoarekiko.

Udalerria	Hasiera-urtea	Izena	Parte-hartzaileen kopurua	Biztanleak//65 urtetik gorakoen %
Zumarraga-Urretxu	2012-2013	Tipi Etapa	35	16.773//22,3
Beasain	2012-2013	Ondo Ibili Ondo Izan	65	13.915//18,2
Urnietea	2012-2013	Bide Osasungarriak	30	6.158//14,8
Asteasu	2013-2014	Pausoz-Pauso	10	1.513//16,3
Lasarte	2013-2014	Ondo ibili Caminar es salud	45	18.444//22,9
Legazpi	2013-2014	Legazpitipi-tapa	35	8.480//23,8
Tolosa	2013-2014	Mugi Tolosa	132	18.993//21,4
Hernani	2014-2015	Ttapa-ttapa Denok Batera	80	19.923//19,6
Ordizia	2014-2015	Goazen Ordizia	92	9.483//20,2
Ibarra	2015-2016	Ibarra Martxan	55	4.215//18,5
Itsasondo	2015-2016	Tipi-Tapa	20	674//18,5
Idiazabal	2016-2017	Itzal Bira	25	2.304//24,0
Lazkao	2016-2017	Lazkao Pausoka	45	5.559//18,5
Legorreta	2016-2017	Pikuak Kalera	40	1.433//22,3
Usurbil	2016-2017	Usurbil Goazen Kalera	65	6.159//17,8
Alegia	2017-2018	Txintxarriak Martxan	55	1.746//20,7
Ormaiztegi	2017-2018	Oihan Harri	35	1.314//19,5
Andoain	2017-2018	Ibili Andoain	80	14.659//22,0
Segura	2017-2018	Herri Buelta	20	1.455//19,4
Zegama	2018-2019	Azkorria Begira Martxan	20	1.532//19,1
Villabona	2019-2020	Ibilian	50	5.906//20,4


Erdietsitako lorpenen irismena kontuan hartuta, eta aztertutako literaturan gure proiektuarekin alderatzeko moduko erreferente gutxi daudela aintzat hartuta, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordezari komenigarria iruditu zitzaion Tolosa-Goierri Osasun Publikoko Eskualdean izandako Ttipi-Ttapa esperientziaren ebaluazio-ikerketa bat egitea, aztertzeke zertan asmatu duen eta zein izan diren hutsuneak, eta jarraitutasun- eta hobekuntza-proposamenak egiteko. Hala, agerian geratu da proiektua tokiko esparruan komunitate-ikuspegitik osasuna sustatzeko estrategia dela.

METODOAK

Ttipi-Ttapak izaera komunitarioa duenez, eta horrek konplexutasun handia dakarrenez, erabaki genuen metodologia anitzak eta malguak erabiltzea izango zela bide egokiena, ikerketaren helburuak lortu ahal izateko (17, 18). Garrantzitsua iruditu zitzaigun ebaluazioak aplikagarritasun praktikoari erreparatzea, eragileak parte hartzera bultzatuz, eta komunitatean oinarritutako ikerketa-ekintza partizipatiboaren ekarpenak aintzat hartuz (19, 20). Orobat, QUAL+quan (21) motako diseinu misto bat erabiltzea erabaki genuen; alde batetik, osagai kualitatibo bat zuen ardatz, parte-hartzaileen bizipenak sakon ezagutzera zuzendutako orientazio interpretatzaile-teorikoa zuena, eta, beste alde batetik, osagai kuantitatibo bat ere bazuen, estatistikoki aztertze moduko informazioa jasotzera bideratua (22). Ikertzaileek (osasun publikoaren alorreko sei langilek, eta lehen mailako arretako bik) metodologia horiei buruz ezagutza-maila desberdina zuten, diziplina anitzeko ikerketa-ikaskuntza-esperientzia gisa gauzatu zen ebaluazioa (23), eta zortzi lantegi egin ziren azterlanaren faseetan, hasierako diseinutik ebaluazioa idazteko eta ezagutarazteko fasera arte. Parte-hartzaileen iritzia ezagutzeko, esku-hartzeari buruzko galdetegi bat prestatu genuen, zenbait alderditan (maiztasuna, iraupena, ibilbidea, hamaiketakoa, antolaketa) eta ondorioetan (jarduera fisikoa hobetzea, jendearekin egotea, lagunak egitea eta entretenitzea) oinarrituta; parte-hartzaileek 1etik 10era bitarteko eskalan balioztatu behar zituzten alderdi horiek guztiak. Oinarritako datu demografikoak (sexua, adina, egoera zibila) eta parte-hartzearen maila (gutxitan, batzuetan edo askotan) ere erregistratu genituen. Jende gehiagok erantzun zezan, galdetegiari erraz erantzuteko moduko formatuan ematea erabaki genuen; hori horrela, aurrez informazioa eman eta baimenak bilduta, galdetegiak banatu eta bueltan jaso ahal izan genuen ibiltari guztiengandik, aztertutako 13 udalerrietan egindako irteeretan. Gutxienez galderen % 50 erantzuna zuten galdetegiak baliozkotzat jo ziren, eta erantzunen analisi deskribatzailea egin genuen, erantzun zuten pertsonen sexuaren, adinaren eta egoera zibilaren arabera. Ehunekoak zenbatetsi ziren, eta khi-karratuaren testa aplikatu zen, SPSS programaren (15.0 bertsioa) bidez taldeen arteko desberdintasunak alderatu ahal izateko.

Azterlan kualitatiboaren diseinuak orientazio ebaluatzailea eta partizipatiboa izan zituen ardatz (17, 24, 25). Laginketa nahita egin zen, udalerririk desberdinetako ibiltariak sartuta, eta ez antzeko profilak zituztenak; boluntarioak, Osakidetzako langileak, parte hartu zuen ikastetxe bateko irakasleak eta ikasleak, nagusiekin lan egiten duten boluntarioritza-elkarteetako ordezkariak (Nagusilan), desgaitasun funtzionaleko pertsonak (Garagune), migratzaileak (Ordizia Kolore), merkataria, eguneko zentro bateko parte-hartzaileak, gizarte-langintzako eta kiroletako udal-teknikariak, esperientziaren sustatzailea den osasun publikoko teknikari bat eta udaletako, Osasun Publikoaren Zuzendariordeetako eta Osakidetzako ordezkariak. Informazioa biltzeko, bederatzi talde fokal sortu, eta bakarkako hamar elkarrizketa egin genituen, elkarrizketatuentzat onuragarrienak ziren tokietan eta baldintzetan, erdi egituratuta zegoen baina haien ekarpenak biltzeko aukera ere ematen zuen gida batez lagunduta (gaztelaniaz zein euskaraz) (26). Bileren iraupena 45 eta 120 minutu artekoa izan zen, eta ikerketa-taldeko kideek beraiek gidatu zituzten; talde fokaletan, bi ikertzailearen laguntza ere izan zuten. Guztiak grabatu ziren, aurrez baimen informatua bilduta, eta landa-oharrak jaso ziren, bilerak amaitutakoan. Talde berak transkribatu zituen grabazioak, hitzez hitz, eta jatorria anonimo bihurtuta. Azterketa kualitatiboa egiteko, gaikako analisiaren eredu (27) egokitu zen aztergaiaren konplexutasunera, testuetan eta haiek sortu ziren testuinguruetan oinarrituta kategoriak, azpigaiak eta gaiak identifikatuz, landa-oharren ekarpenekin batera. MAXQDA 11 programa erabili genuen narrazio-segmentuak kodetzeko, ordenatzeko eta berreskuratzeko, eta kontzeptu-mapa errepikatuak egin genituen gai nagusiak eta haien arteko loturak multzokatzeko eta interpretatzeko. Egindako tailerretan eta komunikazioetan, informazioa lortzeko eta aztertze prozesuetan sortutako zalantzak

eta balorazioak eztabaidatu genituen taldean. Azterlanaren baliozkotasunari dagokionez, ikertzaileen triangulazioaz gainera, aktiboki bilatu genituen analisiaren emaitzekin kontraesanean ziren datu posibleak (kasu negatiboak), eta bilerak egin genituen parte-hartzaileekin, emaitza garrantzitsuenei buruz hitz egin eta haiek berrikusteko (28, 29). Gainera, Euskadiko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde Etikoaren onspena jaso zuen ikerketak, eta parte-hartzaileek baimen informatua eman zuten, eta ikertzaileen konpromiso etikoa hartu eta gogoeta egin (30).



EMAITZA KUANTITATIBOAK

Datuen analisi kuantitatiborako, 492 parte-hartzailek betetako 477 galdetegi bildu eta analizatu ziren, 13 udalerritako irteeretan erregistratutako parte-hartzaileek beteak. Horien artetik, 464 izan ziren baliozkoak (baliozko erantzunen tasa: % 94,3). Galdetegien % 64 emakumezkoena zen, eta % 36 gizonezkoena. Batez besteko adina 69,8 urtekoa zen (% 75a 65 urtetik gorakoa zen). % 33 alarguna zen; % 32, ezkondua; % 31, ezkongabea, eta % 4 banandua edo dibortziatua. % 64k aitortu zuen askotan parte hartzen zuela jardueretan; % 29k, batzuetan parte hartzen zuela, eta % 7k, gutxitan. Parte-hartzea handiagoa zen talde adintsuenetan. 2. taulan, esku-hartzearen eta hark dakartzan onuren zenbait osagairi buruzko balorazioak jaso dira, sexuaren, adinaren eta egoera zibilaren arabera desberdintasunak adierazita. Puntuazio globalak 10etik 8 puntutik gorakoak dira kasu guztietan. Asebetetze orokorra 9,05ekoa da, eta nabarmen handiagoa da emakumeetan, adintsuenetan eta alargunetan. Jardueren eta haiek dakartzaten onuren dimentsioei dagokienez, balorazio hobekak jaso dituzte, berriz ere, emakumeen eta pertsona nagusien aldetik. Erkaketan, ariketa fisikoak jasotzen dituzte puntuazio baxuenak. «Jendearekin egotea», «entretenez» eta «lagunak egitea» alderdiek lortu dituzte puntuazio altuenak, emakumeen, adintsuenen eta alargunen aldetik bereziki; edonola ere, kasu honetan desberdintasunak ez dira estatistikoki esanguratsuak.



2. taula. Jarduerearen balorazioak, ekarpenak eta gogobetetzea sexuaren, adin-taldearen eta egoera zibilararen arabera.


Guztirakoa Kop. (%)	Jardueraren balorazioa										Parte hartzeak dakarren onuraren balorazioa						Asebetetze globala (B ± DE)			
	Maiztasuna (B ± DE)	Iraupena (B ± DE)	lbi/bidea (B ± DE)	Hamake-takoa (B ± DE)	Antolaketak (B ± DE)	Beste jar-duera batzuk (B ± DE)	Puntuazio globala (B ± DE)	Jarduera fisikoa hobetzea (B ± DE)	Jendearekin egotea (B ± DE)	Lagunak egitea (B ± DE)	Entretentzea (B ± DE)	Puntuazio globala (B ± DE)								
Sexua																				
Emakumeak	293 (64,0)	8,72 ± 1,652	8,84 ± 1,696	8,99 ± 1,313	9,06 ± 1,441	9,17 ± 1,288	8,72 ± 1,850	9,06 ± 0,971	8,54 ± 1,926	9,26 ± 1,044	9,12 ± 1,235	9,22 ± 1,130	9,05 ± 1,050	9,04 ± 1,177						
Gizonak	165 (36,0)	8,19 ± 1,978	8,32 ± 1,997	8,66 ± 1,614	8,39 ± 1,958	8,85 ± 1,493	8,06 ± 2,151	8,57 ± 1,467	7,92 ± 2,019	8,78 ± 1,607	8,50 ± 1,829	8,72 ± 1,593	8,49 ± 1,509	8,74 ± 1,403						
p		0,017	0,005	0,0001	0,0001	0,026	0,013	0,0001	0,525	0,0001	0,0001	0,0001	0,0001	0,002						
Adina																				
< 65 urte	102 (24,3)	8,11 ± 2,146	8,39 ± 1,812	8,60 ± 1,531	8,27 ± 1,955	8,88 ± 1,278	8,51 ± 1,712	8,69 ± 1,279	8,05 ± 2,050	8,83 ± 1,600	8,33 ± 1,915	8,73 ± 1,592	8,44 ± 1,475	8,68 ± 1,463						
65-74 urte	119 (28,3)	8,67 ± 1,644	8,77 ± 1,607	8,75 ± 1,531	8,62 ± 2,027	9,09 ± 1,450	8,38 ± 1,943	8,76 ± 1,271	8,69 ± 1,582	9,22 ± 1,130	9,01 ± 1,424	9,10 ± 1,330	8,98 ± 1,231	9,13 ± 1,101						
75 urte eta gehiago	199 (47,4)	8,71 ± 1,556	8,91 ± 1,571	9,19 ± 1,132	9,24 ± 1,201	9,14 ± 1,342	8,62 ± 2,111	9,09 ± 1,042	8,23 ± 2,113	9,15 ± 1,174	9,09 ± 1,268	9,17 ± 1,187	8,98 ± 1,125	8,95 ± 1,248						
p		0,015	0,043	0,000	0,000	0,281	0,661	0,031	0,048	0,065	0,0001	0,031	0,002	0,038						
Egoera zibila																				
Ekondrak	139 (32,0)	8,54 ± 1,642	8,78 ± 1,697	8,87 ± 1,406	8,82 ± 1,808	9,06 ± 1,492	8,48 ± 1,963	8,94 ± 1,198	8,48 ± 1,737	9,14 ± 1,121	8,95 ± 1,345	9,02 ± 1,323	8,92 ± 1,209	9,07 ± 1,187						
Ekongabeara, dibortziatuak, bananduak	152 (34,9)	8,51 ± 1,853	8,40 ± 2,003	8,73 ± 1,568	8,54 ± 1,945	8,91 ± 1,394	8,21 ± 2,115	8,69 ± 1,271	8,14 ± 2,203	8,99 ± 1,526	8,77 ± 1,723	8,96 ± 1,380	8,73 ± 1,395	8,71 ± 1,381						
Aiargunak	144 (33,1)	8,70 ± 1,702	8,87 ± 1,718	9,04 ± 1,350	9,20 ± 1,248	9,26 ± 1,221	8,81 ± 1,896	9,12 ± 1,007	8,40 ± 1,916	9,21 ± 1,096	9,11 ± 1,239	9,18 ± 1,284	8,99 ± 1,084	9,12 ± 1,157						
p		0,620	0,068	0,188	0,006	0,111	0,078	0,031	0,336	0,346	0,157	0,362	0,235	0,011						
Guztirakoa kop. (B ± DE)	464	442 ± 8,52 ± 1,816	438 ± 8,67 ± 1,818	449 ± 8,88 ± 1,429	420 ± 8,80 ± 1,727	436 ± 9,06 ± 1,368	342 ± 8,49 ± 1,982	308 ± 8,88 ± 1,191	423 ± 8,33 ± 1,975	448 ± 9,09 ± 1,288	433 ± 8,90 ± 1,497	430 ± 9,05 ± 1,327	401 ± 8,86 ± 1,258	437 ± 9,05 ± 1,272						

DE: desbiderapen estandarra; B: batezbestekoa

EMAITZA KUALITATIBOAK

Azterketa kualitatiborako egindako bederatzi talde fokaletan eta banakako hamar elkarrizketetan 43 emakumek eta 37 gizonek parte hartu zuten. 3. taulan, elkarrizketatuen ezaugarri nagusiak eta jatorriak jaso dira.

Ez genuen lortu Osakidetzako zuzendaritzaren ordezkariari elkarrizketa egitea, ez eta «parte hartu ez dutenen» bigarren talde bati ere, nahiz eta aurreikusita egon. Beste talde fokal bat banakako elkarrizketa bihurtu zen (Ordizia Kolore). Talde fokalak zein banakako elkarrizketak ebaluazio-ekimenarekiko lankidetzaz giroan egin ziren. Aurkikuntzak analizatzeko, kodetzeko eta transkribatzeko eta landa-oharretako erreferente enpirikoarekin hainbat aldiz erkatzeko, informazio-emaitzen hiru esparru nagusiak hartu ziren ardatz: parte-hartzaileak, boluntarioak eta, erakundeak eta elkarteak. Dena den, azpimarratu behar da identifikatutako kategoria eta azpigaiak etengabe gainjartzen zaizkiola elkarri eta usuak direla interakzioak.



3. taula. Azterketa kualitatiboko parte-hartzaileak. Guztira: 9 talde fokal eta banakako 10 elkarrizketa; 43 emakume eta 37 gizon; 13 udalerri, 1 eskualde eta 1 zuzendariorde.

Talde fokalak eta elkarrizketak	Parte-hartzaileen kopurua (adina)	Jatorriko udalerria
Usurbilgo parte-hartzaileen TF	3 emakume eta 3 gizon (69-81 urte)	Usurbil
Ordiziako parte-hartzaileen TF	6 emakume eta 3 gizon (61-88 urte)	Ordizia
Tolosako parte-hartzaileen TF	5 emakume eta 4 gizon (60-81 urte)	Tolosa
Hernaniko parte-hartzaileen TF	4 emakume eta 3 gizon (74-86 urte)	Hernani
Parte hartu ez dutenen TF	3 emakume eta 5 gizon (63-87 urte)	Ordizia
Urnietako boluntarioen TF	7 emakume eta 5 gizon	Urnietako (2), Lasarte (2), Hernani (2), Usurbil (2), Tolosa (2), Ibarra (2)
Ordiziako boluntarioen TF	1 emakume eta 5 gizon	Ordizia (2), Legazpi, Legorreta, Itsasondo, Zumarraga -Urretxu
Osakidetzako langileen TF	7 emakume eta 3 gizon (6 erizain, 2 mediku, 2 gizar-te-langile)	Hernani, Lazkao, Tolosa (2), Ordizia, Lasarte, Legazpi, Ibarra, Urnieta
Ikastetxeko TF	4 emakume eta 2 gizon (4 ikasle eta 2 irakasle)	Ibarra
Nagusilani elkarrizketa	1 gizon	Ordizia
Garaguneri elkarrizketa	1 emakume	Legazpi, Ordizia
Udaleko Gizarte Zerbitzuei elkarrizketa	1 emakume	Ordizia
Udaleko zinegotzi bati elkarrizketa	1 gizon	Ordizia
Kirol-arduradunari elkarrizketa	1 gizon	Tolosa
Eguneko zentro bateko arduradunari elkarrizketa	1 emakume	Tolosa
Osasun Publikoko teknikariari elkarrizketa	1 gizon	Comarca Tolosa-Goierni
Ordizia Kolore elkarteari elkarrizketa	1 gizon	Ordizia
Merkatari bati elkarrizketa	1 gizon	Ibarra
Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordeari elkarrizketa	1 emakume	Donostia

Zeharka multzokatu dira emaitza esanguratsuenak, hiru gai-arlo nagusiri buruzkoak.

Talde fokaletan eta elkarrizketetan, eurek aukeraturiko hizkuntzan egin dituzte adierzpenak lasai-lasai, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Beraz, jatorrian, bi hizkuntzetan zeuden verbatimak, baina erabaki dugu bi bertsio egitea; bata, erabat euskaraz, eta bestea, erabat gaztelaniaz, hobeto ulertu ahal izateko. Itzuli diren verbatimak (t)z markatu dira.

1. Jarduera fisikoaz harago

1.1. Aktibitate fisikoa eta are gehiago

Talde eta elkarrizketa guztietan, Ttipi-Ttaparen inguruko bizipenak oso positiboak dira. Oro har, positibotzat jotzen dira jarduera fisikoa sustatuta lortutako eraginak, baina askoz onura zabalagoak hautematen dira:

Tira, ideia batekin hasi ginen; nire ustez, hainbeste zabaldu denez, hasierako ideiatik asko ari da urruntzen, eta, nire iritziz, norabide egokian. Izan ere, lehen, jarduera fisikoan oinarritzen ginen nagusiki [...], gaur egun, uste dut kontzeptua gizarte-kohesioan oinarritzen dela, eta jarduera sozializatzean, e! Eta osasunean ekitate hori bilatzean.(t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Honek guztiak osasunarekin eta ongizate fisikoarekin eta emozionalarekin zuzenean lotura sortzen duenaz gainera, [...] Ordizian, adibidez, ba... abestu egiten dugu; esan dezagun ongizatea lantzen dela, gustura egotea, eta harremanen alderdia oso garrantzitsua da. (t)

Garaguneko arduraduna

4. E: Niri... Niri buruaren aldetik batez ere; izan ere, fisikoki, ni joaten naiz ibiltzera, eta beste gauza batzuk ere egiten ditut, baina buruaren aldetik [...]. (t)

1. E: Bai, buruaren aldetik gehiago. (t)

2. E: Buruaren aldetik, eta fisikoki; biak.(t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

1.1.1. Ateratzea, sozializatzea eta gainerakoekin harremanak izatea

Ttipi-Ttaparen helburu nagusietako bat da nagusien artean jarduera fisikoa sustatzea, baina hori bezain garrantzitsua da sozializazioaren sustapena; helburu bikoitz hori osasunerako oso onuragarria dela sinetsita daude boluntarioak. Halaber, parte-hartzaileek oso balorazio positiboa ematen diete jendearekin hartuemanak izateari, ibilaldietan zehar sortutako harremanei eta loturei, eta programak sozializatzeko ematen dien aukerari.

Nire ustez, esan dezakegu, ba... Ordu batez edo ordu erdiz ibiltzeak, ni ibiltzen naizen taldean bereziki, pertsona nagusiak eta behar handienekoak baitaude, gurpil-aulkian, adibidez, horiei ez die ibiltzeak ezer asko ematen. Onura gehien ematen diena gero saldarekin, jogurtarekin edo dena delakoarekin egiten dugun bilera izaten da; hortik ateratzen dute gehien. Elkarren arteko

kontaktu fisikoa, elkar ezagutzen ez duten pertsonen artekoa; egoitzakoak, batzuk Zumarragakoak baitira, Tolosakoak, herri askotakoak daude hemen. (t)

Nagusilaneke arduraduna

2. G: Konturatu gara ibiltzeak dakarren ariketa fisikoa bezain ona, oso ona baita, hori bezain ona dela sozializazioa, pertsonen arteko hartuemanak. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

1. E: Jendearen arteko harremana, giro ona, batzuen eta besteen arteko harremanak. Guztiekin hitz egiten duzu —“Kaixo, egun on, hau eta bestea”—, eta beste lau hitz, edo dozena erdi bat... (t)

3. E: Bai, bai. (t)

2. E: Egia.

1. E: Niretzako... niretzako, inportanteena.

2. E: Animatu egiten zara; animatu, bai. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

Nire ustez, jardueraren alderdi osasungarrian jartzen genuen fokua hasieran; baina berehala ikusi genuen, baita ere, harremanen eta konexioen alderdia, alderdi hori ere [...] bestea bezain garrantzitsua zela [...].

Gizarteratzea, harremanak sortzea, ezagutzen dituzun pertsonen kopurua areagotzea, aukerak ematea... azken batean, lagunak egitea; hori guztia. (t)

Garaguneko arduraduna

Orobat, parte-hartzaileek asko estimatzen dituzte ibilaldietan zehar izaten dituzten elkarrizketak eta solasaldiak; beste gai batzuen artean, herriko gaiei buruz hitz egiten dute. Eta ez dira ahaztu behar ibilaldien amaierako topaketak; normalean, antolatzaileek prestatutako hamaiketako txiki bat egiten da, eta parte-hartzaileek solasean jarraitzeko aukera izaten dute.

2. G: Batekin eta bestearekin hitz egiten duzu, harreman gehiago izaten duzu zure adineko kideekin, gutxi gorabehera, eta orduan gizartearekin egoteko arrazoi bat duzu, herriari buruz hitz egiten dugulako, politikari buruz, guztiari buruz nolabait, eta, orduan, bada, ondo etortzen zaigu. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. G: Harremanetan, hitz eginez zoaz, elkarrizketa berriak sortzen dira, herriko gauzei buruz informatzen zara. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

1. E: Eta bukaeran, gainera, bilera bat egiten dugunez oparitzen diguten saldarekin, ba elkarrekin hitz egiten dugu, eta giro polita sortzen da. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

Ttipi-Ttapak kalera ateratze hutsa errazten die askori. Ttipi-Ttapako parte-hartzaile asko bakarrik bizi dira, eta beste batzuek mugikortasun-arazoak dituzte; hortaz, gizarte-esklusioa eta bakardade-arazoak pairatzeko aukera ugari dituzte. Esperientzia honi esker, etxetik atera daitezke, normalean joaten ez diren udalerriko guneeetan paseatu, eta bestela harremanik izango ez luketen pertsonekin sozializatu.

2. G: Beste alderdi bat, oso-oso garrantzitsua dena, eta hala iruditu zaigu guri hasieratik, nahiko apartatuta zeuden pertsonak, ia harreman pertsonalik ez zutenak; pertsona horiek etorri dira, ez daude asko, baina pare bat etorri dira taldera, eta sozializatu egin dira, hitz egiten dute, solasean aritzen dira, lagunak egin dituzte, hori guztia egin dute, eta, beraz, guk garrantzi handia ematen diogu alderdi horri ere, gauza horiei guztiei. Esaten zenuen eran, normalean egun osoa etxean sartuta ematen duten pertsona horiek ateratzea, ordu pare batez etxetik ateratzera bultzatzea, horrela, kontxo, bada zer bait, ona da, ala? (t)

Ordiziako boluntarioen TF

2. E: Niri oso ondo iruditzen zait. Eguraldi ona egiten duenean, nik etxetik pasatzen ikusten ditut, eta pentsatzen dut, ba begira, paseo hori, hor doaz. (t)

3. G: Bai, paseo horregatik ez balitz, ez lirateke aterako. Hori da; ibilalditxo hori ez badute egiten, ez dira etxetik ateratzen apenas. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

1. E: Nire ustez horrek oso ona izan behar du aukera handirik ez duen edo bakarrik bizi den pertsona batentzat; orduan, zahar-etxera joaten da, edo talde horietara, baita ere, laguntza jasotzen du hor, eta solasean egiteko aukera, batzuetan ez baitu horrelakorik izango. Jainkoari esker, guk ez dugu horrelako arazorik, baina... (t)

3. G: Ni neu, adibidez, ez naiz ateratzen bizi garen plazatik, ostegunetan ez bada. Izan ere, nik, nire emazteak ezin nauenez aulkian eraman, beste aukerarik ez dut, ezpada garajeetan dugun plazan ibiltzea. (t)

5. E: eta horrekin atera egiten zara. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

Mugikortasun-arazoengatik harremanak izateko eta lagunak egiteko zailtasunak dituzten pertsona horiei, aspaldiko kideekin eta lagunekin berriz elkartzeko aukera eman die ekimen honek, eta lehen zituzten harremanak berreskuratzea.

3. G: Lehen esan dizudanagatik, nik egin behar dudana, lehen harremana izaten nuen pertsonekin harremana berreskuratu, galduta baikenuen, nire ezintasunagatik galdu baitugu, eta, orain, adiskidetasuna berreskuratu dut pertsona horiekin, denbora batez galduta egon ondoren. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

1. G: Lehendik zenituen harremanak ere bai, baina denbora batez izan dituzunak... Nik bezala, adibidez, aspaldi zen bi lagun ez nituela ikusten, eta, halako batean, gurpil-aulkian topatu nituen. Hara! Hunkitu egin ninduen horrek, eta haiekin hitz egitera joan nintzen. Denbora asko zen nik ez nuela ikusten, urteak agian! Eta, hara! Jo! Amaratzen bizi zen bat. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

Jarduera honek gutxienez astean behin elkartzeko eta harremanak izateko aukera ematen die normalean topo egiten ez duten pertsonari. Hiriguneaz gain erdialdetik urrutira dauden auzo periferikoak dauden udalerrietan, auzo desberdinetako pertsonak elkar ezagutzea eta haien artean harremanak sortzea ahalbidetu du Ttipi-Ttapak.

2. G: Hemen denekin ibiltzen zara, aste osoan ikusi ere egiten ez dituzun askorekin, eta, orduan, asteazkenean, Santueneko baten bat ikusten duzu, edo hemengo norbait, normalean ikusten ez duzuna, eta orduan garrantzitsua izaten da. (t)

3. E: Adibide bat jartzearen, nik hau ez dut ikusten aste osoan, eta asteazkenetan ikusten dut, adibidez. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

3. E: Izan ere, hemen auzo asko ditugu. (t)

1. elkarrizketatzailea: Auzo desberdinetako jendea etortzen al da hona? (t)

1. E: Bai, auzo guztietako jendea. (t)

1. E: Santuenen jubilatutako etxe bat dago; eta Aginagan, beste bat. (t)

3. E: Denak etortzen dira hona gaurko egunez; denak etortzen dira. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

1.1.2. Elkar ezagutzea

Parte-hartzaileen artean harremanak sortzea ahalbidetu du Ttipi-Ttapak. Alabaina, harreman horiek ez dira mugatzen irtenaldira bakarrik; esperientzia honi esker ezagun gehiago dituzte orain, eta elkar ezagutzen dute kalean, elkar agurtu, eta hitz egitera gelditzen dira. Gainera, parte-hartzaileak ohartzen dira nor falta den asteroko irteeran, eta gertatu da parte-hartzailearen bat hiltzea ere, eta haiei buruzko oroitzaren bat izatea.

2. E: Aurreko batean, Mugiko emakume batekin topo egin nuen, eta pentsatu nuen: "Nork demontre agurtu nau?" Eta asteazkenean, hara joandakoan, esan zidan: "Nik agurtu zintudan, Mugikoa naiz". Noski, Mugikoa! Inoiz ikusi gabe nengoen, baina, noski, agurtu egin ninduen: "Agur X!" Eta nik pentsatu nuen: "Emakume hori?" Bera konturatu zen nik ez nuela ezagutu. Asteazkenean, hurbildu, eta esan zidan: "X, nik agurtu zintudan". Ikusten; hori da ba. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

1. E: Behintzat kalean topo egiten duzu, niri buruz ari naiz; bistaz denak ezagutzen dituzu, baina albotik pasatzen ginen, agurtu gabe. Talde hauei esker, konturatzen naiz jende gehiagok agurtzen dugula elkar, eta pixka bat hitz egiten ere gelditzen gara. (t)

1. G: Harreman estuagoa duzu jendearekin, horregatik da. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

1. G: Ni lehen, ea ezagutzen duzun hau eta bestea, eta, orain, berriz: — Demontre, hau eta bestea, horrelako gauzak. (t)

5. E: Orain hitz egiten gelditzen zara. (t)

1. G: Horixe da: "Aizu, joan den ostegunean ez zinen egon". Horrelako gauzak: "Zure falta sentitu genuen". (t)

1. G: Eta ostegunetan faltan botatzen dugu elkar, agertzen ez diren pertsonen falta sentitzen dugu. Aizu, zer gertatzen da! (t)

Denak: Egia da, bai, egia. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

2. G: Nire ustez, gainera, ba, mundu guztiak eskertzen du, gertatu baita gurekin etortzen zenetako bat hiltzea, eta... Tira, beti izan dugu oroitzaren bat haientzat, minutu bateko isilunea, edo antzeko zerbait, eta hori eskertzekoa da, bai. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

1.1.3. Bizitza betetzea (bizipoza, ilusioa, ondo pasatzea)

Esperientzia honetan parte hartzeak eragin nabaria du esparru emozionalean. Parte-hartzaileek adierazi dute oso ondo pasatzen dutela, eta ilusioz itxaroten diotela hurrengo irteerari. Ttipi-Ttapak ematen die ilusio hori, eta parte-hartzailearen batek «bizipoz» gisa laburbildu du. Zaharren egoitzetan bizi diren pertsonen dagokienez ere, garbi ikusi da ekimenak parte-hartzaileen gogo-aldarteak hobetzen duela, eta irteerak poztasuna ematen dietela egoiliarrei.

3. E: Ba, guretzat ondo, behintzat etxetik ateratzen gara tarte batez, eta ondo pasatzen dugu [...]. (t)

4. E: Baita ere, oso ondo, hona etortzen zara, lagunak egiten dituzu, oso ondo pasatzen duzu. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

3. E: Ba, zera esango dizut, asteazkenetan etortzen direnean, "Hara! Zer ondo!" esaten dit senarrak; "eta hor zaude" [...]. "Ba, begira, kar, kar... Denerako denbora ematen dit". (t)

1. elkarrizketatzailea: Asteazkenak iristeko irrikatan. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

3. G: Joan den astean, zera galdetu zidan emakume batek: "Zer ematen dizu zuri?" Zer ematen didan? (t) Bizipoza.

1. elkarrizketatzailea: Bizipoza ematen dizu?

3. G: Bai, nik uste dut horrekin dena esanda dagoela; bizipoza ematen dit. (t)

1. E: Horixe baietz. (t)

1. elkarrizketatzailea: Bizipoza, lagunduta zoazelako? Edo ez ibiltzeagatik bakarrik... (t)

3. G: Ibiltzeagatik, lagunduta egoteagatik, guztiagatik. (t)

1. E: Niri ematen didana aparta da, jendearekin nagoelako; gainerakoan, etxean, bakardadea. Jendearekin hitz egiten dut [...] Niretzat liberazioa izan da; alargun gelditu naiz duela gutxi, eta, orduan, niretzat... (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Elkarrizketatzailea: Bueno, komentatu duzu ariketa fisikoaz gain, beste esparru batzuk ere inportanteak direla: sozialak, emozionalak etab. Jaisten dena gustura etortzen da gora? Errepikatzeko gogoarekin?

Bai, bai, bai eta pasa zaigu askotan, ba, bezperan baiezkoa esan eta agian gogoratzen ez dena egun horretan... "nora naramazu orain?" eta jeitsi dena eta bueltan bertsotan etorri. Esan nahi dut, beraiantzako ere oso oso onuragarria da eta etortzen dira beste animo batekin eta joaten dira pozik gehienak, eta pozik jaisten ez dena edo jaisten dena pixka bat horrela, etortzen da oso pozik.

Lurramendiko gizarte-langilea

1.1.4. Belaunaldi arteko harremanak

Zenbait udalerritan, ikastetxeek ere parte hartzen dute Ttipi-Ttaparen irteeretan, eta, horri esker, sozializazioa gertatzen da belaunaldi desberdinetako jendearen artean ere. Belaunaldi arteko harreman horiei esker, nagusien errealitatera hurbildu dira gazteak, eta gehiago gogoratzen dira familiako kide nagusienekin.

Oso positiboa iruditzen zait ikastetxeak ere belaunaldi arteko jardueran parte hartzen joatea pixkanaka, balioen bila, nagusiak errespetuz tratatzen ikasteko, nagusiek asko dute irakasteko; oso ona iruditzen zait esperientzia-truke hori. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

6. E: Oso esperientzia ona egin da ikastetxeekin. Ikastetxe bakoitzak zentro batekin hartu du konpromisoa. Tolosan 2 zentro daude... 2 egoitza, lurramendi eta Uzturre. Orduan, eskola bakoitzak konpromiso jakin bat hartu du, eta oso ona da elkarrizketa, gazteek nagusiekin dituzten elkarrizketak, eta gero 12etan denok elkartzen gara, eta salda, jogurta, ura hartzen dugu. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2. ikaslea: Ikusten duzu nola ilusionatzen diran zaharrak eta, zu etortzen zarenean, eta, igual, zuri ez zaizu iruditzen hainbesteko poza sortzen duzunik, baina nik, baina gero nik uste dut polita dela esperientzia.

Ibarra ikastetxeko TF

1. ikaslea: Ondo etortzen zaigun gauza bat dela, adinakoekin eta hola erlazionatzea eta komeni zaigula, ez? beti gure rollora joan beharrean, egun batean ba beste zati hori ikustea.

2. irakaslea: Bai, baita ere aurreko astean kointziditu nuen bigarren mailakokin, hauek kanpoan zirela [...] eta gero galdetu nien: eta zuen aitona-amonekin egoten al zarete? Ba... ez!, batek esan zidan, egia esan ez gara..., eta orduan igual, [...] etxean dituenak kontuan izatea.

Ibarra ikastetxeko TF

4. E: Nola ari diren portatzen gaztetxoak, nola ari diren portatzen nagusiak, zer pozik dauden! Eta zu, gerturatu, eta zera esaten diezu: — "Joe, a zer gaztea tokatu zaizun gaur, andazaina, laguntzen dizuna! Kontxo, horrela edozein, ni ere bai aizu" Hain pozik jartzen dira, ederra da... Eta, gero, hori, nik esan dudana, izaten dituzten elkarrizketak. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

1.1.5. Gizarteratzea

Ttipi-Ttapa programa irekia da; edonork parte har dezake, eta horrek jatorri desberdinetako pertsonen gizarteratzea sustatzen du. Zenbait udalerritan, migratzaileen elkarteek beste edozein eragilek bezala parte hartzen dute, eta gainerako parte-hartzaileek kolektibo horrekiko duten ikuspegi positiboa sustatzen dute.

Goazen, nagusientzat, eta ez nagusientzat bakarrik, guretzat (etorkina) ere elkartzeko aukera bat da... jendea ezagutzeko aukera... A bai, bai; lehen, ibilaldia hasten zenean, oso jende gutxi ezagutzen ninduen. Bai, gero, dantzaldi bat egin genuen, eta nik abesti bat abestu nuen; orduz geroztik, ba, denek ezagutzen naute. Mutil hori trebea da dantzan eta abesten, eta ikasten ari da. A, noski, zeren... Ez badakite ezer guri buruz, nola jakingo dute, adibidez, Nepalekoa naizela, (izena) dudala izena, hemen bizi naizela, hemen lan egiten dudala, eta ikasten ari naizela... Informazioa behar dute, bai. (t)

Ordizia Kolore elkarteko boluntarioa

Parte-hartzaileez beraiez harago, pertsona nagusiak eta abar, hemen gauden boluntario taldea udalerriko beste kolektibo bat gizarteratzeko baliagarria izatea, herriko etorkinen kolektiboa hain zuzen ere, ezta? Gizarteari haiek ere jende aktiboa direla ikusarazteko balio izan duen plataforma bat izan da; ikusarazteko laguntzen dutela, parte hartzen dutela, eta, horrela, kolektibo horrekiko ikuspegi positibo bat zabaltzeko. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen kontua iruditzen zaigu, jo, guk ere parte izan nahi dugun eran, pertsona horiek ere parte izan nahi dutela, eta aukera aparta da, esan dezagun, nolabait, «aitzakia» honekin, herrikoak diren ala ez diren baina bertan bizi diren eta bizitza herrian duten jendearekin elkartzeko astero. Elkar ezagutzeko bidea ematen digu horrek. Eta asteroko kontua denez, ikusi dugu elkar ezagutze horrek, guri laguntzen digun eran, lagun nepaldarrei eta senegaldarrei ere laguntzen diela. Hori horrela, guretzat oso aberatsa da. (t)

Garaguneko arduraduna

1. **elkarrizketatzailea:** Lehen ere aipatu duzue, baina, beste boluntario batzuen lana, etorkinena esaterako, gizarteratzeko modu egokia iruditzen zaizue? (t)

6. E: Nire iritziz bai, hala da. (t)

2. E: Beti da komenigarria. (t)

1. E: Gainera, nik uste dut babestuta sentitzen direla, eta herriaren alde zerbait egiten dutela ere sentitzen dute. (t)

5. E: Maite ditugula. (t)

2. E: Konfiantza hartuz doaz jendearekin, eta lagunak egiten. (t)

1. E: Asko hasi dira euskaraz hitzak esaten, eta pozik daude, haiek ere lagundu nahi baitute. Nire ustez garrantzitsua da. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

Gainera, Ttipi-Ttapak desgaitasun funtzionaleko kolektiboak gizarteratzen ere laguntzen du, eta aukera ematen die Garagune eta halako zentroetan dauden pertsoneri ateratzeko eta ibilaldietan zehar gainerako parte-hartzaileekin harremanak izateko.

Azken finean, guk nahi duguna da jendeak, presentziaz gainera, kalean ikusiak izateaz gainera, aktiboki parte hartzea, eta pertsona horiek beraiek ikustea, eta gainerakoei erakustea, ekarpenak egiteko gai direla. Hain zuzen ere, helburuetako bat da parte hartzen has daitezela, adibidez, ba auzokide-elkarte batean, baita mota honetako bileretan ere, hau da, egon daitezela, baita ere, gaiak eztabaidatzen eta erabakiak hartzen diren lekuetan. Hori ere helburuetako bat da, komunitateko parte-hartzea sustatzea. (t)

Garaguneko arduraduna

Berdin gertatzen da Garagunen dauden pertsonekin. Noski, Garagunekoek izaten dituzte harremanak beren artean, baina, honi esker, Eguneko Zentrotik ateratzen dira, eta beti pertsona berekin egote horretatik, eta harremanak zabaltzen dira, eta ostegunetan beste pertsona batzuekin hitz egin dezakete. (t).

Osasun-alorreko langileen TF

Kolektibo horien parte-hartzeari esker, parte-hartzaile batzuek gaixotasun mentalak dituzten pertsonak ezagutu dituzte, eta haiei buruz zuten pertzepzioa aldatu zaie.

2. G: Niretzat harrigarria izan da eskizofrenia duten pertsonak ezagutzea; izugarria da, uste nuen pertsona horiek gaixo daudela, eta edozein unetan eraso egin dezaketela, edo; ba telebistan ikusi duzuna [...] Orduan, orain haiekin hitz egiten duzu, eta ikusten duzu pertsona normala dela, zu bezala, medikazioa hartzen dutela, eta kontrolatuta daudela, noski, baina gainerakoan pertsona dira [...] nik beti uste izan dut eskizofrenikoekin edozein unetan piztu zitekeela txinparta; ez da horrela ordea. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

1.1.6. Lagunduz, baliagarria zarela sentitzea

Ttipi-Ttaparen antolaketa komunitarioari esker, boluntarioek paper protagonista dute eta gai direla sentitzen dute, eta ahaldundu egiten dira nolabait.

Poza ez da iristen ematen denetik bakarrik, baita jasotzen denetik ere. Behar duenari laguntzeko gai garela sentitzea oso atsegina eta positiboa da. Ibiltariak, oro har, pertsona nagusiak dira, eta, zenbait udalerritan, eguneko zentroetan instituzionalizatutako edo desgaitasun funtzionala duten pertsonak gehitu zaizkie. Boluntarioek, irteerak dinamizatzeaz eta antolatzeaz gainera, gehien behar duten parte-hartzaileei laguntzen diete ibilbidean zehar.

3. E: Laguntza horrek, azkenean, gudan eragiten du; izan ere, gainerakoei laguntzea norberarentzat da atsegina, zera sentitzen duzulako... Ba gainerakoei laguntzeko gai naiz, erabilgarria naiz [...] positiboa. (t).

Urnietako boluntarioen TF

Ba niri, boluntario naizen aldetik, asko ematen dit, eta oso pozik nago hor nirekin dauden pertsonak duten erantzunarekin. Ez nik ematen dudana gatik, baizik eta nik asko eman didela adierazten dutelako haiek. Niretzat hori da... Tira, oilo-ipurdia jartzen zait gazte batek edo nagusi

batek besarkada bat ematen dizunean, Garagunekoek maitasuna ematen dizutenean, pertsona horietako edozeinek... Niretzat hori aparta da. (t)

Nagusilanekeo arduraduna

5. E: Jendea oso pozik dago; hori esaten dute, egun hori sakratua dela. Izan ere, gurekin etortzen hasteak esan nahi du batzuekin eta besteekin hitz egiten hasten direla, eta ikusten da haientzat atsegina dela, "tira, aizu, ondo pasatu dut" esateko moduan, eta gustura ateratzen dira, gustura ateratzen dira bai; gu, ba, pozez txoratzen, eta boluntarioak ere bai. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2. G: Mugikortasun-arazoak dituen jende asko joaten da hor, eta hori, ba, aholkuak ematea eta esatea "eman izena taldean, lagunduko dizute-eta", guk laguntzen baitiegu, guk, zuk ere esaten zenuen eran [...], behar badute laguntzen diegu. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

Laguntza hori elkarrekikoa da batzuetan; laguntza jaso duten pertsonak lagunduz parte hartzen dute orain, eta alderantziz, laguntzen dabilzan pertsonak espero dute etorkizunean haiei laguntzea.

Garaguneko pertsona batek eguneko zentroko norbaiti laguntzen dio aulkia eramaten, adibidez; hortaz, oso aberatsa da, laguntza jasotzen eta laguntza ematen dugulako, eta, nire ustez, hori da elkarrekikotasunaren balioa, ezta? Azkenean ez zara ondo sentitzen, zera, laguntza jasotzea oso ondo dago, baina laguntza jaso bakarrik egiten baduzu, uste dut inor ez dela gustura sentitzen, laguntza jaso besterik egiten ez duenean. [...]

Eta emateko gai zarela ikusten dutenean, orduan, ba bai, oso ondo. (t)

Garaguneko arduraduna

5. G: Ikusi ditugu zenbait emakume, gehiago izan baitira emakumeak gizonak baino, dolu bat igaro dutenak, 3 edo 4 egun lehenago, eta 2 egunetara hona etorri dira, eta beste pertsona batzuekin parte hartu dute. Oraintxe, hain zuzen ere, zenbait alargun daude, hona etorri eta beste pertsona batzuei ibiltzen laguntzen diotenak. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

Gaur ondo zaude, baina bihar agian ez zaude hain ondo; orduan, zergatik, agian bigarren taldera igaroko gara, zergatik ezin diegu laguntzatxo bat eman, eta orduan harreman polit hori sortzen da, eta esatean duzu, ni ondo nago, baina pixka bat lagunduko diet hain ondo ez dauden horiei, e! (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

1.1.7. Osasunaren parte direla aitortzea

Ttipi-Ttapari buruz hitz egitean, erakundeek aitortzen dute, haien diskurtsoan sartzen dute, eta osasunaren parte gisa ikusarazten dituzte zenbait alderdi, hala nola pertsonen arteko harremanak sendotzea, talde bateko kide sentitzea eta ongizatea eragiten duten beste zenbait alderdi, eta, aldi berean, osasun mentalaren, sozializazioaren eta gizarte-kohesioaren ikuspegitik positiboki interpretatzen direnak.

Mugikortasun-arazoak edo harremanak izateko zailtasunak dituzten pertsonen talde bat dago; pertsona horientzat, beste pertsona batzuekin topo egitea, eta haiei entzutea, haiekin hitz egitea [...]. Harremanen alderdi horrek, nire ustez, eragin positiboa du jendearen osasunean. (t)

Zinegotzia

Ibiltzeak zure ongizate fisikoari laguntzen dio, baina, gainera, taldean egiten baduzu, zure osasun mentalari ere laguntzen dio nolabait; izan ere, jende gehiagorekin egoteko aukera ematen dizu, komunikatzekoa, orduan, orotara, nire ustez, ongizateari laguntzen dio, eta bi alderdi horietan hobetzen du osasuna nolabait. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Ikusi dugu ez dela jarduera fisikoa bakarrik; gizarte-kohesioaren alderdia hori bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da kasu horiek ikusita, bai; paseo bat ematera ateratzen dira, baina... Horra joaten direnean, aldatu egiten dira, lagunduz parte hartu nahi dute, fisikoki ondo badaude, zer dakit nik, laguntzeko prest egoten dira aulki bat baldin badago, edo besotik helduta eraman behar bada norbait, nik hori ikusten dut, eraldaketa hori. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Helburua, nolabait, ez zen fisikoki osasungarria izatearen alderdi hori bakarrik, baizik baita etxeetan zegoen jendea ateratzera animatzea ere, parte hartzera bultzatzea, eta ez jarduera fisikoan bakarrik, baita sozializazio-prozesuan ere. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

2. Barne-antolaketa

2.1. Proiektuaren ibilbidea eta estrategiak

2.1.1 Epe laburrak ez du balio

Ttipi-Ttapa, funtsean, parte hartze prozesu bat da, hainbat eragilek ildo beretik egindako lanean oinarritzen da, eta udalerrietako egoera zehatzetara egokitzen da. Erakundeen inposizioak ez dira inola ere onartzen proiektuan. Hori horrela, edozein lidergo jakinetatik kanpo gelditzen diren erritmoak errespetatu behar dira.

Tira, guk gauzak hemen antolatuta ditugun eran, parte hartzen duten taldeetako batek antolatzen du ostegun bakoitza. X-k esan duen eran, datorren osteguna Osakidetzari dagokio; beste ostegun bat, guri; beste bat, Nagusilani; beste bat, Kimetzi, eta beste bat, Ordizia Koloreri. (t)

Zinegotzia

Tira, inplikazioari dagokionez, garbi ikusten da prozesu partizipatiborik ez badago, hasi baino lehen, hara iritsi eta zera esanez gero «Aizue, goazen ibiltzera, eta hauek dira ibilbideak...» Ez, ez; oinez jaitsi behar ditugu, jende nagusiarekin lan egiten dugu, haien erritmora joan behar dugu, gustatzen zaien horrekin, ez Osasun Publikoak edo Osakidetzak esaten dutenarekin, edo alkateak edo gizarte-zerbitzuek esaten dutenarekin; haiengandik atera behar du. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Ttipi-Ttaparen premisetako bat da udalerrietako eta haietako komunitateen testuinguruetara egokitu behar dela. Hori horrela, tokian-tokiko elementuek (udal-dinamikak egotea lehenagotik,

konpromiso politiko jakinak hartuta izatea, kontu-sail ekonomikoak, sentsibiltate jakin batzuk) proiektuaren garapena erraztu edo zaildu dezakete tokiko mailan, eta horrek denboran gehiago edo gutxiago atzeratzea ekar dezake.

Ba, martxan jarri genuen, lehenengo Beasainen; gero, Zumarragan, edo Zumarragan eta... Ez naiz gogoratzen nola doazen ordenan. Baina, tira, han geundenez Agindu Bizimodu Osasungarria ABO ekimenarekin, eta Zumarragan ere zerbait egin beharra zegoenez, konnotazio politiko bategatik, garai hartan, ba horrela abiarazi genuen, eta egokituz joan gara pixkanaka. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Egia esan, aurretik Eusko Jaurlaritzak garai hartan sustatutako Euskadi Lagunkoiaren diagnosiaren gaia lantzen aritu izan ginen, eta, beraz, harremanetan egon ginen Matiarekin diagnostiko bat egiteko, ezta? Jakiteko zer egoera zegoen Ordizian, zer neurri proposatzen ziren, ezta? Ba, parte-hartzea sustatzeko, eta, tira, pertsona nagusien bizikidetzeta ona. Orduan, zera, programa horretan barneratutako sentsibiltatea bagenuen, ezta? Orduan, testuinguru horretan, Ttipi-Ttapa ekimena aurkeztu zen, eta jendea erakartzeko modu bat zela iruditu zitzaigun, egiten hasita ginena finkatzeko modu bat, bai. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Horrek esan nahi du badaudela horretara bideratutako aurrekontu batzuk, eta, batzuetan, esaten duzu, aurten ezin dugu, ez daukagulako kontu-sailik esleituta, eta ondo iruditzen zaigu, egingo dugu datorren urtean. Udalak duen erritmora ere egokitu beharra dago [...]. Ni harremanetan jarri nintzen aurten proiektua abiarazi nahi zutenekin; urte-amaieran, haiekin egon nintzen, eta esan zidaten baietz, ondo iruditzen zitzaie. Orain, jaiak igaro diren honetan, berriz deitu diet; batzuk prozesuan gaude jada, baina beste batzuek beste 2 edo 3 dei beharko dituzte. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Ttipi-Ttapak, bere egituragatik, denbora behar du, errotzen joateko. Lehenengo, mezua tokiko mailan helarazteko; gero, inplikazio politikoa eta teknikoa lortzeko, eta, azkenik, tokiko eragileena. Horretarako, hartu-emanak izan eta lan-bilerak egin behar dira erakundeetako teknikariek. Horien arabera, eta udalerraren testuinguruaren arabera, ezin da lan-karga zehaztu, eta ezin da jakin zenbat denbora beharko den udalerrri bakoitzean Ttipi-Ttapa abiarazteko.

Administrazioan pentsatu behar da oso azkar batzuetan, 2 hilabetetan, 3 hilabetetan beste batean, eta 6 hilabetetik urte batera ere bai, gero! Bada bat hasi genuena; guztia prestatuta dago, epelkeriatan dabilta, batez ere tokiko administrazioan. Tira, espero dezagun abiaraziko dela; hau da, urtebeteko prozesuaren ostean martxan egon dadila [...]. Kontatzeko moduaren arabera, baina ni alkatearekin lehen aldiz harremanetan jartzen naizenetik irteerak egiten hasten garenera arte kontatuz gero, 5, 10 edo 12 bilera izan daitezke, bai! Baina, batez beste, 6 edo 7 bilera izango lirakeke [...]. Behin programa hasitakoan, errazagoa da [...]. Behin bilerak hasitakoan, bileretatik oso pozik irteten dira, e! Orain arte, behintzat, hala izan da guztietan, batean izan ezik. [...]. Baina, hala ere, behin eta berriz saiatu behar da; izan ere, prozesua bukatu genuen, txartelak eta horrelakoak egitea falta zen, eta, zera, negua igaro da, ez dute tutik ere esan, ba, udaberrian, herriko jaiak igarotakoan, abisua eman genien, ea oraingoan proiektuari hasiera emango diogun, e! Pare bat bilera besterik ez zaizkigu falta, dena eginda dago, dena eginda dago, eta, orduan, irteera-eguna jarri behar da. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Beste alde batetik, denboran asko iraungo duen proiektua izan nahi du Ttipi-Ttapak. Hori lortzeko, ezinbestekoa dira komunitatearen inplikazioa eta konpromisoa, parte hartzen duten pertsonen eta proiektua sustatzen duten erakundeez harago.

Hori eragileei buruz, eta, boluntarioei buruz, ea, nik uste dut boluntarioen joan-etorriak izan ditugula, ezta? Batzuk hasi ziren, eta gero beste jarduera batzuk hasi eta proiektua utzi behar izan zuten, baina beste berri batzuk sartu dira. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Nik uste dut nire lan-bizitza datorren urteko maiatzean bukatuko dela, [...], orduan, nik nahi nukeena da, zera... Orain eskualdean zaudetenean ibilbidearekin jarraitzea, katea ez etetea. Horregatik, ni programa horietatik ateratzen ari naiz, zuek ondo egiten duzuelako, eta, orduan, ba, tira, zuek jarraitzea besterik ez dut nahi nik [...]. Nik egin nahi dudana da urte bat, transmisiokoa nolabait, nire aldetik oso pertsonalista izan dena ez dadin galdu; hau da, ni joan naiz eta guztia bukatu da, hori ez. Aldiz, ez dela pertsona bakarraren kontua izan, talde batek egin duela lana, eta ideiak dituela, eta ideiak aldatuz joango direla beharren arabera, e! [...] Beharrak aldatuz joango dira agian. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

1. G: Lankidetzan dihardute guztiek hor. (t)
5. E: Baten bat ez bada joaten, ez da gelditzen, horrek aurrera jarraitzen du. (t)
1. E: Beti dago zinegotziren bat... Zinegotzi bat etortzen da; lehen, beste bat etortzen zen. (t)
2. G: Antolatzea egokitzen zaion erakundea etortzen ez bada ere, berdin jarraitzen du, beraz. (t)
2. E: Berdin, jarraitzen du; honek aurrera egiten du, ez da gelditzen. (t)
2. G: Beste batek hartzen du ardura; beste erakunde bateko norbaitek edo kaleko norbaitek, besterik gabe. (t)
1. **elkarrizketatzailea**: Bai, parte-hartzailea den batek. (t)
4. E: Egia esan, bikain funtzionatzen dugu, oso ondo. (t)
1. **elkarrizketatzailea**: Beraz, dagokion erakundea etortzen ez bada, behar beste jende biltzen ez bada, erakunde horretako jendea, berdin funtzionatzen du. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2.1.2. Lan egiteko modua

Modus operandia

Normalean, Osasun Publiko atala dagokion udalerriko osasun-zentrora hurbiltzen da, eta proiektuan inplikatzeko eskatzen dio. Behin hori lortutakoan, dagokion eskualdeko Osasun Publikoko koordinatzaileak lehen hartuemanak izaten ditu udalerrietan, maila politikoan, eta lehen talde sustatzaile bat eratzen da hiru partaide horiek.

1. G: Izan ere, anbulatorioan guk pentsatzen ditugu gauzak; nola antolatuko gara? Nola egingo dugu? Ba, X etorri zen, proiektua proposatu zigun, eta esan genuen: "Jo, aparta da!". Tira, ea, nola antolatuko gara, nola egingo ditugu gauzak eta abar. Eta horrela hasi ginen... (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Tira, esan dugun eran, talde sustatzailea udalak, osasun-zentroak eta Osasun Publikoko atalak osatzen dugu. Orain arte, honela funtzionatu dugu Tolosan: osasun-zentrora hurbildu gara, eta

esan diegu haien zentroan Ttipi-Ttapa abiarazteko asmoa genuela. Zer iruditzen zaizue? Izango al dugu aliantzarik? Eta behin hori finkatutakoan, normalean ni udalarekin jartzen naiz harremanetan. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

X-rekin (Osasun Publikoa) eta anbulatoriotik datorren lantalde osoarekin, sustatzaile-papera egin dugu. (t)

Zinegotzia

Orain, ez dakit, X (Osasun Publikoa) izan zen lehena etortzen; hitzaldi guztiak berak eman zituen antolaketaren hasiera-hasieratik. Lan handia egin zuen, eta mundu guztiak oso gustura hartu zuen. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Kargu politikoak erabakitzen du zer sail inplikaturiko diren maila teknikoan, eta udalerriko eragileei deitzeaz arduratzen da (baliabide teknikoak, elkarteak, elkartu gabeko pertsonak), hasiera batean programa eraikitzen lagundu ahal izango dutenei. Hortik aurrera, parte hartze prozesua hasten da, lan-bileren bidez, programa abiarazi eta martxan egon arte.

Normalean, ni jartzen naiz harremanetan udalarekin, [...]. Ez dira oso udaletxe handiak izaten; ni alkatearengana agertzen naiz, prozesua zertan datzan azaltzen diot, eta, ondo iruditzen bazaio, gizarte-zerbitzuekin hitz egiten hasten gara, gutxi gorabehera proiektua zuzendu dezaketela iruditzen zaigun zerbitzuekin, edo alkateari iruditzen zaion beste atalen batekin. Eta, orduan, behin alkateak baiezkoa emanda, hark eskuordetutako pertsoneri azaltzen diet [...], gainera, zertan datzan programa, [...], eta normalean ondo inplikutzen dira. Orduan, haiek lehenengo bileran bat egiten dute. Guk nahi duguna da udala eta gizarte-zerbitzuak arduratzea, alde batetik, saila eta udala, deialdiak antolatzeaz eta bilerak egiteaz eta dagozkien aktak egiteaz. Orduan, haiek jartzen dira harremanetan erretiratuekin eta beste pertsona batzuekin, eta programarekin bat egingo dutela iruditzen zaien elkarteekin. Lehenengo bileran, guztiok gaudenean, talde sustatzailekoak, [...], lehenengo azalpena ematen da [...], bertaratuek ondo iruditzen zaiela esan ohi dute [...]. Aurrera egingo dugu orduan, eta beste kontu batzuk ere sortzen dira, hau eta bestea falta da, eta orduan, 2. edo 3. bileran, prozesuan esku hartuko duen talde osoa eratzten dugu, eta prozesu partizipatiboa hasten dugu amaierara iritsi arte. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

[...] eta politikoak konbentzitu ondoren, hemengo politikoek eman ziguten guri kargu hori martxan jartzeko.

Kirol-alorreko udal-teknikaria

Udalerriek badakitenean eskualdeko beste udalerririk batzuetan Ttipi-Ttapa abian dela, horrek erraztu egiten du prozesuaren lehenengo etapa (talde sustatzailea eratzea) hurrena proposatzen den udalerrietan. Alabaina, udalerririk bakoitza eta haren lehentasunak desberdinak izaten dira, eta, beraz, erritmoak eta emaitzak desberdinak izaten dira.

Erraztasunak ematen dizkiguna da ez dela jarduera hasi berri bat; 2012an hasi ginen, 2013an, eta, orduan, jendeak edo udalek badakite dinamika bat badagoela, alboko alkateak oso ondo hitz egin die honi buruz, edo beren alderdiko norbaitek, eta, orduan, ba, hasieran baino jarrera hobea izaten dute proiektua onartzeko. Eta ez gara ari sortzen, ez gara ari kontrako alde asko bilatzen udalaren aldetik... Batzuetan, haien erritmoak eta lehentasunak ez dira izaten guk nahiko

genituzkeen horiek, baina herri bakoitza desberdina da, talde bakoitza ere desberdina da, beren arazo propioak dituzte. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Elkarrizketatzailea: Eta gertatu al da inoiz udalen bat zuekin harremanetan jarri izana, Osasun Publikoko atalarekin? (t)

Zuzenean edo zeharka bai, e! Udalerri batekin hori gertatu zen; garai hartan, prozesua egiten ari ginen alboko herrian, eta esan ziguten ea joango ginen, eta haiena izan zen ekimena. Hor geunden biak, eta artean egin gabe zegoen, baina, tira, haien modura antolatu dira, eta ari dira ari gaur egun. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Parte-hartzaileen antolaketa eta egitekoak

Parte-hartzea antolatzeko modua, proiektuko partaideek dituzten egitekoak eta partaide bakoitzaren inplikazioa modu jakin batekoak izaten dira herri bakoitzean. Osasun Publikoko atalari dagokionez, proiektua sustatzeko eta abiarazteko lanaren esparruan, azpimarratzekoa da udalerriei gauzak gogorarazteko eta behin eta berriz errepikatzeke egiten duen lana, betiere behaketan, egokitzapenean eta udalerrri bakoitzarekiko errespetuan oinarrituta. Ttipi-Ttapa ekimenak abian direnean ere, Osasun Publikoa udalerrri guztietan egoten da, eta eragozpenak transmititzen ditu, eta haiek gainditzeko moduan proposatu, eta leku batzuetako eta besteetako jardunbide egokien berri ematen die udalerriei, eta prozesuak aberasten laguntzen du horrek.

Eta, batzuetan, huskeriengatik, ez da ateratzen; eta nahiz eta zerbait aurka izan, Gizarte Zerbitzuek ez dutela parte hartu nahi-edo, ba beste moduren bat bilatzen duzu, lagunduko dizun norbait. Baina tematia izan behar da; ez pentsatu telefonoz deitu edo harremanetan egotearekin, behin elkarrizketa bat egin, eta guztia abian jartzen denik, eta denak bere kasa funtzionatzen duenik. [...] Izan ere udalari ondo irudituko zaio, alkateak baietz esango du, agendan jasoko du, eta ziurrenik 2 edo 3 hilabete igaroko dira, artean hura zurekin harremanetan jarri gabe. Orduan, berriz deitu behar diozu, eta ziurrenik esango dizu, "a bai, ahaztuta nuen". Beraz, tematia izan behar da, eta behin eta berriz gogorarazi. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Gure egiteko betikoa da, akuilariarena, hain zuzen ere; gauzak ikusiz, eta programa bideragarriak egitera bultzatuz jendea. Guk kanpoko ikuspegi bat izan behar dugu nolabait [...], bideratzaileak izan behar dugu gauza horiek egin daitezen, galderak egin, "aizue ez zaizue iruditzen, horrez gain, ibiltzeaz gain, zergatik ez dugu beste hau ere egiten? Halako lekutan zera egiten dute...". Azkenean transmisio lana da, eta ikuspegi jasoago bat izan behar dugu [...]. Haiek egin ditzakete ekarpenak, eta guk ere egin ditzakegu, baina guk gidatu egin behar dugu pixka bat, ideia horiek bultzatu, edo ideiak hartu [...], garatzen lagundu, eta eskualdeko beste leku batzuetara eraman, eta ez eskualdekoetara bakarrik, baita komunitate osora ere. Lan hau ez da guretzat; eskualde osoarentzat da; kasu honetan, estatu osoarentzat. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Osakidetza dagokionez, parte-hartzaileen profilak askotarikoak dira.

Osasun-zentrokoak oso integratuta daude guztiak. Atzo denak atera ziren hau egitera, LAUB eta erizainak, bidean zer zailtasun zegoen ikusteko. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

1. G: Ordizian, adibidez, bilakaera handia izan dugu osasungintzako langileen parte-hartzearen aldetik; guztiak hasi ginen, medikuak, emagina, administrazio-langileak, erizainak eta, nola ez, antolatuta, adibidez, binaka; horrela, 6 astetik behin egokitzen zitzaigun joatea, gutxi gorabehera. Oso eramangarria zen. Izan ere, ez da gauza bera astero joan behar izatea, agenda moztu behar izatea (gero gainerako agendetan eragiten dizu horrek), edo 6 astean behin joan behar izatea. Tira, ba horrela hasi ginen, eta zuzendaritzak berak ere jarri zituen baliabide jakin batzuk. (t)

2. E: Niri, gizarte-langilea naizenez, eta nirekin dagoen ikasleari, funtsezkoa iruditzen zaigu lan hori. Beti joaten gara, idatzita uzten dugu, eta denbora ateratzen dugu edonola, han egoteko. Eta oso baliagarria zaigu; izan ere, jendearen arteko harreman horiek asko hurbiltzen dute jendea. Galderak egiten dizkigute, "a, ba etorri zentrorra". Eta, nire ustez, osasun-zentrotik kanpoko hurbiltasun hori oso mesedegarria da. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Udalerrien artean desberdintasunak daude bakoitzak dituen funtzioetan: irteeretan parte hartzea, antolaketa-lanetan eta laguntza-lanetan, Ttipi-Ttapa gomendatzea kontsultan, hurbiltzea zaila den kolektiboengana iristea, ebaluazio-bileretan parte hartzea, proiektuari babesa ematea erreferentziako profesional diren heinean.

4. G: [...] Hemen beste guztiak bezala egiten zuten, Nagusilane edo beste edonork bezala, etorri, zigitatu, salda prestatu, banatu, beste edozeinek egiten zuen paper bera egiten zuten, eta, beraz, oso garrantzitsua zen [...]; nire ustez Osakidetzaren ekarpena oso garrantzitsua da. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

3. G: Guztiak nagusiak gara; guztiok daukagu min edo gaitzen bat. (t)

2. G: Ez da ezer sortu, baina sor daiteke. Ez dago inor hoberik gaia pixka bat ezagutzen duen erizain edo pertsona bat baino. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

3. G: Bai, izan ere, anbulatorioan egiten diren bilera guztietan, mediku batek eta erizain batek parte hartzen dute. Beti parte hartu izan dute; beraz, haiek ere antolaketaren barruan daude. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

1. E: Erizaina beste taldearekin joaten da beti, gurpil-aulkian daudenekin. (t)

1. G: Nire ustez aukera aparta da honako hau. Bakoitzak bere kuota du, eta ezagutzen ditugu mugak dituzten edo etxetik ateratzen ez diren pertsona horiek, eta kontsultatik informazioa eman diezaiekegu, eta... (t)

2. E: Osasun-zentroan galdetuko ez dizuten hori hemen galdetzen dute, eta, beraz, beste esparru bat da... Bat-batekotasun handiagokoa, jendea askoz ere lasaiago dago, erlaxatuago; bai, guztiari buruz hitz egiten da. (t)

3. M: Nire ustez askoz ere ekarpen handiagoa egin daiteke, ez presentzia fisikoa bakarrik, ezta? Nire ustez hor badago eremu egoki bat gauza gehiago lantzeko; ez dakit, hori esaten dit senak. (t)

5. E: Tira, bai, ebaluazioetan egoten naiz, bai, badakit, e! (t)

2. G: Ateratzen garenean, egia esan jendeari atentzioa ematen dio beren medikua edo erizaina haiekin batera paseoan ikustea, eredu izanez; hori da lortu dezakegun aktiborik onena, baina noski, ikusi egin behar gaituzte. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Udalerrian, zenbait sailek eta ordezkariak parte har dezakete proiektuan. Zinegotzi batzuek inplikazio politikoa dute, eta egunero ere parte hartzen dute batzuek, eta udal-teknikariek ere parte hartzen dute. Normalean, kirolekin eta gizarte-zerbitzuekin lotutako atalak inplikatzen dira lehenbizi.

Hemen bi atal dira: nik zuzentzen dudana, gizarte-zerbitzuei, osasunari, lankidetzari eta immigrazioari dagokiona, eta X-k zuzentzen duena, EAJko kideak, kirolekoak. X kirol-teknikaria da; alde batetik, Osakidetzarekin lankidetzan jardun zuen eguraldi txarra dagoenean frontoian edo zahar-etxean egin daitezkeen ariketak prestatzen, eta, beste batetik, Eroskirekin saldei eta zukuei buruz dugun akordioan ere parte hartu zuen. [...] Gure taldean, udalaren txanda denean, Gizarte Zerbitzuetako kideok parte hartzen dugu [...]. Tira, guztiz inplikatuta ez; ostegun batzuetan ezin izaten duzu joan, beste bilera bat duzulako edo... Baina udalaren txanda denean, X edo ni egoten gara normalean. Alde batetik, administrazio-langileak daude, eta zahar-etxera joaten garenean salda prestatzera, gu joaten gara, eta Ordizia Koloreko boluntario batzuk ere bai. Natural egiten dugu, gure lanaren parte izango balitz bezala. Udalaren txanda bada, Gizarte Zerbitzua da. Han agertzen gara, ixak eta izenak jartzera, txartelak zigilatzen [...]. Nik ez dakit nola egiten duten beste udal batzuetan, baina guzti-guztiek parte hartu beharko lukete. Politikarien parte-hartzea duten denboraren arabera izango da. (t)

Zinegotzia

4. E: Niri iruditzen zait, nolabait, Hernaniko Udalak proiektuaren aldeko apustua egin duela. Esan nahi dut, jendearen mobilizazioa, deiak egitea eta abar, Osasun Zentroa; hau da, Osasun Zentroan emandako txartelak eramaten zituzten bakoitzean... Bi izaten ziren, eta gutunak eta hori guztia... Hau da, niri udalaren inplikazioa izugarria iruditu zait. (t)

5. E: Egia esan, udalerrietan oso desberdinak dira; ez dute zerikusirik. (t)

6. E: Lazkaon ere inplikazio handia izan zuen udalak. (t)

4. E: Legazpin ere bai. (t)

2. E: Eta Tolosan. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Tira, udalek ikusi dute prozesu honek funtzionatzen duela, eta horrek emaitzak hobetzea ekarri du, eta gero eta hobea gainera; kontratazioak egiten hasi dira, edo kiroldegiko begirale hura ekartzen, jarduera fisikoetako begiralea, eta irteeretan parte hartzen du. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Parte hartzen duten boluntarioen profilak askotarikoak dira. Aktiboki parte hartzen dute; funtsezkoak dira Ttipi-Ttaparen irteeretan, hainbat lanez arduratzen baitira.

Elkarte askok parte hartzen dute programan: batetik, administrazio erakundeek, Osakidetzak eta udalak, adibidez; bestetik, irabazi-asmorik gabeko elkarteek, Nagusilan eta Kimetz elkarteek, esaterako; bai eta elkarte gisa antolatuta ez dauden baina banaka parte hartzen duten ere, Ordizia Kolorekoek, esate baterako. Tira, nire ustez proiektua % 100ean egitea ahalbidetzen duten zenbait elementu bildu gara hor. (t)

Zinegotzia

3. G: Nik balio gehiago ematen diet boluntarioei, nire ustez errespetu handia merezi dutelako egiten duten lan izugarriagatik. Izan ere, kontuan hartu behar da pertsona nagusiak gara, eta guztiok ditugula gure bitxikeriak, eta jasan egin behar gaituztela. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

2. **elkarrizketatzailea:** Zenbait elkartek parte hartzen dute bileretan; erretiratuen elkarteak, adibidez. (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Elizak. (t)

2. **elkarrizketatzailea:** Odol-emaileen elkarteak. (t)

3. **G:** Odol-emaileek ere bai. (t)

2. **elkarrizketatzailea:** Bilera horietan erabaki dira ibilbideak, izena, fitxak egin dira. (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Eguna eta ordua zehaztu. (t)

2. **elkarrizketatzailea:** Herriko jendeak abiarazi du proiektua. (t)

4. **E:** Badaude 5 hainbat gauzatan parte hartzen dutenak. Zuk aipatu duzun X hori odol-emailea da, ez dakit zer den; hona etortzen da, eta ez dakit nora gehiago joaten den. Mutil hori asko mugitzen da. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

2. **G:** Egia esan, egiten ari garena, guk geuk egiten dugu, boluntariok; jendea bultzatu, ona dela esan, ibiltzea ona dela, ona dela taldean ibiltzea, guztion artean sozializatzea. Hori guk egiten dugu, ia guztia. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Parte-hartzaile ibiltariak ere beren buruarekin adostutako konpromiso gisa ikusten dute jardueran parte hartzea. Esan dutenez, ematen dizkien onurez gainera, proiektuarekiko konpromiso eta lankidetzak aktibo gisa ikusten dute beren parte-hartzea.

1. **G:** [...] Izan ere, etxetik ateratzera behartzen zaitu, baita ere, pixka bat, ateratzera eta mugitzera, ez dakit, niretzat... Oso ona da, logikoa iruditzen zait, eta mesede egiten digu guri; mesede egiten digu gu guztioi. Gero, ibilbideak oso atseginak dira, ibiltzen zara; tira, ba ez dakit, nire ustez oso onuragarria da guretzat. (t)

2. **E:** Guretzat konpromiso bat da; bai, konpromiso bat da. (t)

4. **E:** Ni ozta-ozta hasi nintzen... Berak gonbidatu ninduen etortzera, bizitzako une kaskar samar batean harrapatu ninduen, eta hasi nintzanean parte hartzen! Eta laguntzen! Eta egoten! Eta harremanak izaten! Gora egiten hasi nintzen, gora egiten, eta hemen gaude, orain ez dugu uzten inola ere! Ez, ezin dut, Mugi daukat; ezin dudala, Mugira noala. Mugi da garrantzitsuen! (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. **G:** Kezka bat duzu; badakizu hona etorri behar duzula. (t)

1. **E:** Asteazkenetan etorri egin behar duzula. (t)

2. **G:** Horren beharra daukat; nik, aurrena, hau, egun bakarra baita. Gainerakoak egin ditzaket, agian, beste zenbait egunetan, edo ostegunetan ez banaiz joaten larunbatean joan naiteke. (t)

3. **E:** Benetan nahi izanez gero, ahal duzu; modu batean edo bestean antolatuta, ateratzea badagokizu, ahal duzun bezala moldatzen zara. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

2. E: Asko gure kasa etortzen gara. (t)

4. E: Behar duenari, lagundu egiten diot. Ez dela laguntzarik behar, ibiltzera joaten naiz. Dena delakoa. (t)

1. G: Egun batean zigilatu egiten dute, beste batean zera... (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

Antolaketan ere parte hartu izana, zigilatzen adibidez, eta gero salda hartzeko mahaiak jartzen, horrek ere sentiarazi die parte-hartzaileei ibili baino gehiago egiten dutela, haiek ere lagundu dezaketela antolaketan. (t)

Garaguneko arduraduna

Informazioa eta hedapena

Ttipi-Ttapak informazio- eta hedapen-lana egitea eskatzen du; bai martxan jartzeko, bai eta parte-hartzeari eusteko ere. Udalerrri gehienetan udalak gutun bat bidaltzen die 65 urtetik gorako guztiei Ttipi-Ttapan parte hartzeko gonbidapenarekin.

2. E: A, eta gutun bat ere bidali ziguten. (t)

1. G: Bai, bai; gutun bat bidali ziguten. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Gainera, Ttipi-Ttapan funtsezko alderdi guztietan bezala, hemen ere behar-beharrezkoa da zenbait eragileren parte-hartzea. Erakundeetako zenbait pertsona edo erakunde horietako ordezkariak izendatzen dira, eta haiek jartzen dira harremanetan beste eragile batzuekin, programa aurkezteko eta parte-hartze proposamena egiteko.

Elkarrizketatzailea: Zeinen bidez informatu zineten Mugi honetaz?

Nik uste udaletxeakoak izan zirela harremanetan jarri zirenak gurekin; X esango nuke, baina X izango zan garai hartan. Pentsatzen dut berarekin udaletxetik proposamena etorri zela handik; eta beno pixka bat probatzeko, eta ea prest geunden, eta jeitsi, eta horrela hasi ginen.

Iurramendiko gizarte-langilea

1. **elkarrizketatzailea:** Zuen kasuan, nola jakin zenuten jarduera hau existitzen zela?

1. G: Hemen, bilera bat egin genuen hau antolatu baino lehen; probintzia osoko ardura duen pertsona bat etorri zen.

3. E: Diputaziokoak, behintzat bat edo.

1-2 **elkarrizketatzaileak:** "X etorriko zen". "X gure jefea da" (Osasun Publikoa).

Bai, bai (denek).

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

Parte-hartzaile ibiltariak boluntarioen elkarteak aipatzen dituzte informazio-iturri gisa, Nagusilan eta jubilatuen zentruak, adibidez.

5. E: Ni modurik sinpleenean hasi nintzen parte hartzen. Ni Iturrizako zaharren elkartean nago, orain X ere bai, eta, noski! Iturrizari zegokion egunean, zera esan zidaten: Begira, X, asteazkenetan hau egin dezakezu. Eta nik, noski, joan behar bada, joango naiz, ez nago, eta joan naiteke. Eta horrela hasi nintzen, hau da, nahi gabe bezala. Bestela, erretiratuen elkarteko batzordeko X-k esan izan ez balit, joan gabe egongo nintzateke oraindik agian. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

5. E: Eta jubilatuen zentruko batzuek ere esaten dizute. (t)

1. G: Niri jubilatuen zentruan esan zidaten talde hau osatuko zela eta [...].(t)

1. G: Nik emaztearen bidez jakin nuen. Nire emazteak zahar-etxean jakin zuen —“Aizu, X, hau dago... Joan egin behar duzu”. Joateko esaten badidazu, ba joango naiz. Eta oso gustura joaten naiz. Gauza bakarra, ba, nik ezin dudala lehenengo taldean joan, barkatu, e, baina bronkioak ditut, ba zera. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

Ttipi-Ttapan osasun-zentroko medikuek eta/edo erizainek gomendatuta hasi zirela ere adierazi dute. Bestalde, psikologiako langile batek jardueran parte hartzeko agindua eman ziela ere aipatu dute.

2. E: X-k honi buruz hitz egin zidan duela zenbait egun; gustatuko litzaidake zuk parte hartzea, ba, joango naiz. Bai, Osasun Zentroko X erizainaren bidez. (t)

2. E: Bai, esan zidan bai. Nahi nuke zu hona joatea. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

2. G: Asuncion klinikako erizain batekin ere hitz egin nuen honi buruz, hark esan zidan. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. **elkarrizketatzailea:** Beraz, psikologoak gomendatu dizue? (t)

4. E: Ordutegi bera izaten zuen, ostiraletan, eta ostegunetara pasatu zigun, hona etor gintezan. Eta ondo. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Familia eta ezagunak ere funtsezkoak izan dira programa gomendatzeko eta ezagutarazteko lanean; parte hartzera animatzen dituzte gurasoak edo gertuko pertsona nagusiak.

2. G: Hona etortzeko, nire alabek ere... “Aizu, joan behar duzu, e! Gu erosketak egitera goaz, baina zuk joan egin behar duzu”. Hau da, esan nahi dut mugiarazi egiten nautela haiek. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

3. E: Tira, niri ilobak deitu zidan, hemen dagoenak, zuekin etorri denak. (t)

3. E: Esan zidan, “izeba, Ttipi-Ttapa hastera doa, zergatik ez zara joaten?” “Tira, ba animatuko naiz”. Baina hori duela, zera... Bi urte edo badaramatzagu dagoeneko, ezta? (t)

2. E: Niri seme-alabek deitzen didate beti, etxera iristen naizenean, ea zer moduz, zer moduz paseoa, eta non egon naizen, bat eta bestea. Tira, ba, azalduko dizuet. Eta hiruei azaldu behar izaten diet zer egin dugun. (t)

1. E: Bai, seme-alabek animatu egiten zaituzte. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Ahoz ahokoa eta prentsa behin baino gehiagotan aipatu dira, elkarrizketetan zein talde fokaletan, programaren informazio- eta hedapen-bide gisa.

[...] Nik uste ahoz ahokoak ere asko egiten duela.

Iurramendiko gizarte-langilea

1. E: Ahoz ahokoak asko egiten du. (t)

5. E: Ahoz aho. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

4. E: Tira, noizbehinka, aldizkarian jarri izan dugu artikulu txikiren bat [...]. Ondo etortzen dira, gogorarazteko. (t)

3. G: Egunkarian irakurri nuen eta... (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. E: Nik egunkarian. (t)

3. G: Egunkarian, gure kronikan, astero aipatzen da, asteazkenean, Ttipi-Ttapan, hau eta bestea... (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Azkenik, kaleetan egotea bera, astero hain talde handia ikustea, nagusiak gehienbat, herrian zehar paseatzen, horrek ere Ttipi-Ttapa ezagutarazten laguntzen duela adierazi dute.

Ikusi nola kriston taldea joaten garen, jendeak ere ikusten du eta esaten dute: "hau zer da? Hauek zertara doaz?"

Iurramendiko gizarte-langilea

3. G: Oinez doazenean ere publizitatea da; hor doaz, hor doaz zaharrak... (t)

3. G: Jendea ikusminez zegoen. (t)

1. G: Konpainia osoa, batailoi bat hor... (t)

2. E: 50 pertsona dira gero. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

2.2. Berezitasun komunak

Bakoitzaren autonomia errespetatuz, eta herri bakoitzaren ezaugarriak ezaugarri, alderdi jakin batzuk Ttipi-Ttapa egiten den udalerrri guztietan gertatzen dira.

2.2.1. Prozesu bakoitza identifikatzeko izena

Udalerrri bakoitzak izen berezi bat ematen dio Ttipi-Ttapa prozesuari. Parte-hartzaileak udalerrian udalerriko izenarekin identifikatzen dira.

3. G: Izena bileretako batean aukeratu zen.

Hernaniko parte-hartzaileen TF

2. G: Hernanitik nator, partikularra naiz eta orain dela urte bat hasi nintzen Ttipa-Ttapan eta gustora nabil...

1. E: Tolosatik nator, Mugi Tolosatik; baina Nagusilan elkartean nago, nagusien gizarte-boluntariotzako elkartean. (t)

6. E: Naiz Ibarrakoa eta Ibarra Martxan ateratzen gara, boluntarioa naiz gauza gehiagotan, eta ni nago parrokian sartuta.

Urnietako boluntarioen TF

2.2.2. Maiztasuna

Ttipi-Ttapan, irteerak astean behin egiten dira beti. Parte-hartzaile gehienek uste dute maiztasun hori nahikoa dela ilusioari eusteko, eta beste jarduera batzuk ez eragozteko. Funtzio sozialari eta integratzaileari dagokionez, batzuek gustura hartuko lukete maizago egitea.

4. E: Ondo dago, astean behin ondo dago; gehiagotan egitea gehiegi izango litzateke agian. (t)

3. E: Jende gehiagok egingo luke kale, gehiagok egingo lukete kale. (t)

4. E: Bai, astean behin egitea nahikoa da, horrela ilusioari eusten zaio. Izan ere, zerbaitegatik etenaldia egon denean, inauteriengatik-edo, eta pertsona nagusiren batek kalean ikusten zaituenean, asteazken honetan badago, ala? Badugu, ezta? Asteazkenera arte! Horrela, ilusioari eusten zaio. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

3. E: Niretzat nahikoa da, gero beste gauza batzuk ere egiten ditudalako. (t)

2. G: Gehiagotan egitea nekagarria izango litzateke. (t)

3. E: Jarduera asko daude, gainera. (t)

2. E: Nik, adibidez, ibilketa egiten dut arratsaldeetan. (t)

1. E: Eta astelehenetan ere bai, eta asteazkenetan ere bai. (t)

2. E: Pilates eta guzti; ez dirudi, baina... (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

Bai, behintzat hemen dauden pertsonentzat, astean behin izan ordez astean bi aldiz izango balitz, niri iruditzen zait, ba, batzuentzat oso ondo [...] gu beti ari gara horrelako komunitate-jarduerak bilatzen. (t)

Garaguneko arduraduna

2.2.3. Gaitasun desberdinak - ibilbide desberdinak

Paseoen ibilbideak parte-hartzaileen gaitasunetara egokitzen dira. Udallerri gehienetan, zailtasun-maila desberdinetako bi ibilbide edo gehiago prestatzen dira, pertsonen beharretara egokituta.

1. **elkarrizketatzailea:** Ondo da, eta esan duzue ibilbide laburra, luzea eta ertaina egiten direla; egokiak iruditzen zaizkizue? (t)
3. **G:** Bai, izan ere, norberaren gaitasunaren arabera dira. (t)
2. **G:** Hori da. (t)
3. **G:** Guretzat, adibidez, laburrean biltzen gara eguneko zentrokoak, Aspacekoak, egoitzakoak eta ni bezala dagoen besteren bat, eta, ertainean, berriz, hauek daude... (t)
6. **E:** Gu. (t)
3. **G:** Pixka bat gehiago ibiltzen direnak. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

2. **G:** Bi talde daude: batean, arinago daudenak, esan dezagun; eta, bestean, berriz, ba pixka bat baldarrago dabiltzanak. Orduan, baldarren ibilbidea, baldar esaten diegu, baina asmo txarrik gabe, e! (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Bai, bai; bakoitzak bere ahalmek ditu. (t)

2. **G:** Horiek ibilbide laburragoa egiten dute. (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Beraz, bi ibilbide egiten dituzue egunero. (t)

2. **G:** Bi ibilbide, bai. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

2.2.4. Iraupena

Parte-hartzaile gehienei egokia iruditzen zaie jardueraren iraupena.

4. **E:** Urte dezente ditugu jada, ez gara hain gazteak, eta joan den asteazkenean, adibidez, bero zegoen; azkenean pixka bat nekatuta iristen zara. (t)

3. **E:** Guretzat ordubete irauten duena nahikoa da, batzuk makilarekin joaten dira, edo makuluekin, eta, batzuetan, haien zain egon behar izaten dugu; nire ustez ordubetekoa nahikoa eta sobera da guretzat. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

3. **E:** Ordubetetik gora ez lukete nahiko agian, e! (t)

2. **G:** Jende askok ez. (t)

1. **E:** Nik uste ezetz, ordu bat.

1. **elkarrizketatzailea:** Ordu bat ondo dago. (t)

1. **G:** Ondo dago dagoen bezala. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

2.2.5. Hamaiketakoa

Herri gehienetan, ibilaldiaren ostean, parte-hartzaileak aurrez finkatutako leku batean biltzen dira, eta hamaiketakoa egiten dute; salda, jogurt bat edo fruta izan ohi da. Horren xedea da jarduerak pertsonen arteko harremanak ere sustatzea.

Nire ustez kontu hori oso garrantzitsua izan da, eta Legazpi duela gutxi hasi da hori egiten; ibilaldia bukatutakoan, guztiok elkartu eta salda hartzea. (t)

Garaguneko arduraduna

1. G: Baina ondo kontrolatzen dugu, gero! 12etan salda, eta mundu guztia hemen egoten da 12etarako. (t)

1. **elkarrizketatzailea**: Hori da garrantzitsuena, ezta? (Barre egiten dute) (t)

2. E: Noski! (t)

1. E: Bai, hori egia da! (t)

1. G: Ibilbidea laburtu egin behar bada, laburtu egiten da... (t)

3. E: Mahaian eserita solasaldi atsegina sortzen da, egia esan.

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

4. E: Salda ondo sartzen da, gero. (t)

3. G: Salda on bat, arrautza eta guzti. Bero-beroa. (t)

4. E: Saldarik nahi ez duenari jogurta ematen diote. (t)

2. E: Nik jogurta hartzen dut beti. (t)

3. E: Nola zaintzen gaituzten erretiratuak, e! (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

2.2.6. Eguraldiaren araberako alternatibak

Eguraldi txarrak ez du eragozten Ttipi-Ttapa egitea. Udalerrri gehienetan, beste jarduera batzuk egiten dira, hala nola ariketa fisikoa, jolasak edo dantza gune itxietan.

1. G: Guk lagungarri ditugu 2 kiroldegi, Zumarragakoa eta Urretxukoa. Ariketak egiteko gailu batzuk daude, eta 2 kiroldegi horietako monitoreak, biak etortzen baitira, txandakatu egiten dira astean behin, aste batean Zumarraga, bestean Urretxu. Hona etortzen dira, eta gailuetan gidatzen gaituzte; zer ariketa komeni zaigun dugun adinaren arabera eta abar. Horrez gainera, monitoreek gidatzen gaituzte Zumarragako eta Urretxuko kaleetan barrena. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

1. G: Beste kontu bat ere badago; euria ari duenean, adibidez, hona etortzen gara, Euskalherriara, eta lau txokotan, gimnasia egiten dugu, edo beste hura... (t)

2. E: Gimnasia egiten dugu. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

3. E: Ba baten bat zorutzen gelditu zen, e! Gimnasia egiten zutela, eta inoiz egin gabe zegoela, eta zorutzen gelditu zen kiroldegian egin zuten horrekin. (t)

3. E: Elkarrizketa batean, berak esan zuen: — Joe!— Inoiz egin gabe zegoela, eta laurogei urtetik gorakoa bera! (t)

1. E: Oso errazak ziren, e! bueno, gora behera, ezkerra eskubi, ez dakit nola zen.

1. E: Bai, noski! Baina, tira, behin ere egin ez baduzu... (t)

3. E: Bera inoiz egin gabe zegoen, eta pozik geratu zen. Gustura geratu zen. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

3. G: Hemen ibilbide laburra hor hasi genuen, frontoian; baina frontoian ez dago berogailurik, eta hotz handia egiten zuen. Beraz, hori esan, eta zahar-etxera itzuli ginen, eta han, ba, jolasak egiten dira, dantza... (t)

2. E: Lehengoan esaten zuten zuen taldeak euria egitea nahi izaten duela, baloiekin eta abarrekin jolasak egin ahal izateko [...].(t)

3. G: Bai, izan ere... Nik zer dakit bat, beraiek egiten dituzte, e! X-k taula bat ekartzen du egin beharreko jolasekin, dena prestatzeko... Normalean X izaten da begiralea; asko inplikutzen den mutil bat da, denetarako balio du. (t)

6. E: Erabat inplikutzen da. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

2.2.7. Material osagarria: txartelak, txalekoak

Udalerrri bakoitzak bere materialak diseinatzen ditu, irteeretan antolaketa eta identifikazioa errazteko. Hori horrela, udalerrri gehienek parte-hartzaileen erregistro bat jasotzen dute, txartelak zigilatuz, eta udalerrriko Ttipi-Ttaparen logoa duten txalekoak izaten dituzte.

2. G: Guk 2 txartel mota jarri genituen; bat medikuek ematen zuten; eta, bestea, guk, boluntariook. Asistentzia jasotzen dugu, eta, horrela, anbulatorioak agindutakoak funtzionatzen zuela egiaztatzen genuen. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2. irakaslea: Gero, gainera, zahartzaroan ikusten dut bakardadea dela arazo nagusia, eta orduan zerbait antolatzea elkartzeko eta... ikusten dut ona dela, zeren hortara, batera egiten da, eta gero txartela, eta apuntatzea... lotura sortzen du.

Ibarra ikastetxeko TF

1. G: Ba guk talde bakarra dugu, guztiok elkarrekin joaten gara. Gertatzen dena da guk txaleko islatzaile horietako bat janzen dugula, eta herrian guztiz ezagunak gara. Nire ustez, ez da inor egongo, hasieran galdetzen zuten, zer da hau, zer da Ttipi-Ttaparen kontu hori? Txalekoan ere Ttipi-Ttaparen logoa daramagu. Gaur egun ez du inork galdetzen, guztiek ezagutzen baitute. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

5. E: Eta zigiluak urrearen pare balio du! (t)

Urnietako boluntarioen TF

2.2.8. Beste jarduera batzuk Ttipi-Ttaparen esparruan

Ttipi-Ttapako jarduera nagusia asteroko paseoa egitea eta parte-hartzaileen arteko harreman sozialak sustatzea bada ere, parte-hartzaileen aniztasunari eta inplikazioari esker, batzuetan, beste jarduera batzuk ere egin daitezke ordutegi berean, herri bakoitzeko berezitasunetara egokituta: abestu, zozketak egin, opariak, antzerkia, herriko jaiak ospatu, bisita gidatuak egin, eta abar. Horrek are gehiago sustatzen ditu parte-hartzea eta harremanak. Adibidez, udalerrri batzuetan, elkarri agur esan baino lehen, abestu egiten dute guztiek elkarrekin, jarduerari amaiera emateko.

2. irakaslea: [...] Eta gero, beraien artean ere orain ba kantatzen hasi ziren, beno eguberritan hasi ziren, eta gustatu egin zitzairen eta, orduan, 2 edo 3 abesti kantatzen dituzte, eta... osea, ikusten da gogoia dutela, ba, zerbait egiteko, eta ez dela konpromisoa betetzea, baizik eta...

Ibarra ikastetxeko TF

3. E: [...] Lasartetik, eta, gero, ibilbidea bukatutakoan, jendea ez dadin joan elkarri agur esan gabe, iruditu zitzaigun trikimailu ona zela abesti bat abestea. Eta jendeari laguntzeko eskatzen diogu: zer abesti gustatzen zaizue? Abestiren bat gustatzen bazaigu, ba abestu egingo dugu, ezta? Edo norbaitek poesiaren bat ezagutzen badu, ea, poesia errezitatu nahi baduzu, ba hori entzuten dugu; nire ustez abestearen kontu horrek ere ilusio handia eragiten du. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Ordizian, adibidez, ba, ez dakit; abestu egiten dugu. Esan dezagun ongizate emozionala hobetzen duela, gustura sentitzen garela, eta harremanen alderdi hori sendotzen duela, eta oso garrantzitsua da hori. (t)

Garaguneko arduraduna

Udalerrri batzuetan, parte-hartzaileen leialtasuna saritzen da, zozketen eta opari txikien bidez. Gainera, udalerrrietako batean, hilero, saltokietan barrena egiten da ibilbidea, eta saltzaileek emandako produkturen bat zozketatzen da.

1. irakaslea: Zozketarena, hori izan zela nik uste dut dendariak antolatutakoa.

1. ikaslea: Ibarako merkatari desberdinek antolatuta, zozketa eta...

1. ikaslea: Aterkiak eman zituzten euria egin zuen batean.

Ibarra ikastetxeko TF

7. E: Hiru hilabeteetan, opor garaietan, pintxo bana, baita Jubilatutan ere; eta oparia ere bai, opari txiki bat, motxila txiki bat edo riñonera, edo zerbait horrela, jendea gustora!

Urnietako boluntarioen TF

3. E: Guk ere egiten dugu: 10 zigilu lortutakoan, elastiko bat; beste 10 bildutakoan, bizkar-zorro txiki bat, eta, orain, ba kantinplora bat eman digute ura ere eraman ahal izateko. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Udalerrietan, ekimena aberasteko jarduerak antolatzen dira, eta parte-hartzaileek oso onuragarritzat jotzen dituzte.

2.2.9. Bisita gidatuak...

2. G: Niri oso polita iruditu zitzaidan, 60 urtez Tolosan egon eta gero, azkeneko aldian, bisita gidatu bat egin ziguten, eta enteratu ginen. Niretzat, behintzat, oso polita izan zen, Tolosan dauden hainbat gauza ezagutu baikenituen, nik bizi osoan... (t)

2. G: Zerak bisitatzeraz joan ginen [...], babarrunak ontziratzen dituzten lekua. (t)

4. E: Babarrunak, babarrunen kofradia. (t)

2. G: Kofradiara ez, kooperatibara; kooperatibara joan ginen, eta gauzak nola egiten dituzten azaldu ziguten. Babarrunak atera, aukeratu; hori guztia ikusten egon ginen. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. G: Eta, orain, beste xehetasun bat; datorren asteazkenean ez, hurrengoan, Aste Santuko oporrak datozenez, irteera antolatu dugu sagardotegira. Pozez zorutzen daude, ez baitaukate ezer ordaindu beharrik (barrez). Bi pintxo eta bi basokada sagardo jasoko ditu bakoitzak, eta, gainera, mugitzeko zailtasunak dituztenak txu-txu trenean joango dira. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2.2.10. Jaiak, ospakizunak, etab.

5. E: Inauteri-bezpera ere oso polita izan zen; txistorra prestatu genuen, eta txanoak, ileordeak eta halako gauzak eraman genituen, eta, jendea, zera... (t)

Urnietako boluntarioen TF

3. E: Esan digute ibilaldi hauek bukatzean jaialdi bat egin dutela inoiz. (t)

1. E: Antzerki bat egin ziguten. (t)

6. E: Etorri den erizain horrek. (t)

3. E: Grazia handia du. (t)

1. E: Zenbat barre ez ote nuen egin!

3. E: Ahal izan nuena eta gehiago. (t)

1. **elkarrizketatzailea**: Ezkonduen eszenak(t)

Bai, bai, bai. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

1. **elkarrizketatzailea**: Sanferminetan ere egin zenuten zer bait. (t)

2. E: A bai, plazan, zapiarekin. (t)

1. **elkarrizketatzailea**: Entzierroa egin zenuten. (t)

Denak: Bai, entzierroa, dantzaldia. (t)

4. E: Eta iazko Gabonetan, gaztaina-jana, hori ere bai; beraz... (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Gustuko duzue hori, gustuko duzue? (t)

Bai, bai, bai. (t)

2. **E:** Parranda den guztia, bai. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

A bai; adibidez, sanfermin eguna egin genuenean. Dantzaldia plazan pertsona horientzat, esaten dizut nik, [...], plazan, pertsona bat dantza egitera ateratzea, aulkitik altxa eta haiekin zutik jartzea, hori nahikoa da haiek animatzeko. Saltokietan barrena ibili ginen eguna ere oso polita izan zen; izan ere, hor egote hutsa, zapitxo bat egokituko ote zaien, ilusio horrekin, ba tira... (t)

Nagusilanekeo arduraduna

2.3. Pertsonen garrantzia

2.3.1. Balioak

Antolaketaren esparruan aintzat hartzen dira elkarrekikotasuna, laguntza solidarioa eta antzeko balioak, gizarterako erabilgarria den proiektu batean parte hartze hori.

1. **G:** Lehen esan dugun eran egun bakoitzean talde bati egokitzen bazaigu ere, politena da guztiok laguntzen diogula elkarri. Ni, adibidez, supermerkatutik gauzak ekartzeaz eta abarrez arduratzen naiz; baina pixka bat berandu iristen banaiz, beste taldeak egoten dira hor, izenak jasotzen, zigiluak jartzen, hau falta dela; hau da, guztiok laguntzen diogu elkarri, eta, benetan, inork ez daki zehazki zer talderen txanda den. Zergatik? Ba inork ez duelako pentsatzen, ez, ez... Haren txanda da eta... ez, ez, ez. (t)

3. **E:** Laguntzea, azkenean, errenta da; izan ere, gainerakoei laguntzea norberarentzat da atsegina, zera sentitzen duzulako, ba gainerakoei laguntzeko gai naiz, erabilgarria naiz [...] positiboa. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2.3.2. Protagonistak, bideratzaileak, pertsonak: Gaitasunak, jarrerak

Ttipi-Ttaparen ezaugarri nagusietako bat da, eta haren arrakastaren funtsa, proiektua posible egiten duten pertsonen inplikazioa; dedikazio-jarrerara dute, ordezkatzeko duten erakundeaz edo elkarteaz harago.

Saiatzen naiz jendea bideratzen beste egun batzuetara; orduan, egun horretan, printzipioz, ez nago, baldin eta ez bada halako urgentziaren bat gertatzen... eta gero, ba, lan karga hori bideratzen duzu beste egun batzuetara. Hori da bakoitzaren konpromisoa, agian, baina baita ere esaten dugu... nola den gai bat hainbeste ematen dizuna, ba, utzita dagoen esparru hori... nolabait gerturatu zara eta gerturatu zaren hortan gutxieneko hori egin eta bete eta..., orduan, nik gustora egiten dut, eta pena emango lidake...

Kirol-alorreko udal-teknikaria

2. **E:** Funtsezkoa iruditzen zaigu lan hori. Beti joaten gara, idatzita uzten dugu, eta denbora ateratzen dugu edonola, han egoteko. Eta oso baliagarria zaigu; izan ere, jendearen arteko harreman horiek asko hurbilarazten dute jendea. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

3. G: Teorikoki, aste bakoitza talde bati dagokio (antolaketaren arduraduna), baina talde guztiak etortzen dira astero. (t)

2. **elkarrizketatzailea:** Beraz, aste bakoitza talde bati dagokio, baina astero... (t)

3. G: Teorian, joan den urteko oharretan jasotakoaren arabera, erretiratuen taldea dago, Caritasena, eta aste bakoitzean talde batek arduratu behar du. Baina hori teorian da; izan ere, praktikan, mundu guztia etortzen da astero. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

4. E: Tira, Urnietan, mugitzen den horretan, bi erretiratu daude, Benta Berriko bi emakume erretiratu, elkartekoak, eta haiek hasiera-hasieratik egon dira. Beraz, nire ustez, haiek gabe ez litzateke mugitu izango, tira. Inori esatekotan..., zalantzarik gabe, haien meritua aitortu behar da, bi emakume dira...; ea, egia da leku guztietan ibiltzen direla. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Hala erakusten dute, pertsona jakinak (izen bereziz) aipatuz behin eta berriz. Horrek erakusten du garrantzi handia ematen zaiola gertuko lidergoari, eta pertsonen erantzukizun eta konpromiso indibidualari.

Ibilbideak aldatu daitezke, eta eguraldi txarreko egunetan egiten diren jarduerak ere aldatu daitezke pixka bat, barreak, eta X bezalako jendea, tira, hori zera da... Hori jendearen arabera da askotan. Hau ez da erakundea, Osakidetza; Osakidetzakoa bai, baina hau da. (t)

Zinegotzia

Baditugu zenbait adibide, zer dakit nik... Adibidez mutil senegaldar bat, egun batean hemengo mutil batek agurtu egin zuen, eta orain boluntarioa da, eta horri esker, hemen Ordizian bi pertsona baititugu gurpil-aulkian joaten direnak, eta lehen, ba, txandak egin behar izaten genituen. Pertsona bat ateratzen bazen, beste laguntza batzuk behar zituzten beste pertsona batzuk zeudelako. (t)

Garaguneko arduraduna

1. G: Arduratuko den norbait behar da, gidatuko duen norbait, egongo den norbait. (t)

4. E: Gertatzen dena da talde estua osatu dugula. «Izen berezia» aparta da; izugarri balio du, Udaletik dator. Gero, talde bakoitza, izan ere, dagoeneko, egunen batean «izen berezia» etortzen ez bada, honek berdin funtzionatzen du, engranaje bat dago. «Feeling» moduko bat hartu dugu, ez dakit nola esan. (t)

2. G: Ardura bat, ardura bat. (t)

Denak: Bai, bai, bai. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2.4. Ttipi-ttapa eta Osasun Publikoa

Ttipi-Ttapa Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordearen estrategia bat izan da, Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdearen bidez gauzatu dena bereziki, eta eskualdeko udalerrietan osasuna eta komunitate-osasuna sustatzeko balio izan du.

Elkarrizketatzailea: Zure ustez garrantzitsuak al dira honelako ekimenak Zuzendariordetzarentzat?

Oso garrantzitsuak; gainera, komunitate-mailan martxan jarri zen lehenengoetako bat izan zen hau. Zuzendariordetzan, batez ere, kontuan hartuta unitate garrantzitsuenetako bat eta gehien sustatzen dutena osasunaren sustapena dela, ez? Ba, horrelako ekimenak oso, oso, oso garrantzitsuak dira, ez da hala? Zuzendariordetza osatzen duten udalerrietan osasuna sustatzeari dagokionez bai. (t)

Osasun Publikoko zuzendariordea

Halaber, Lehen Arretako Langileen irudia aldatu da udalerrietan, ikusi baita osasuna babesteaz gainera, osasuna sustatzeko eragile ere badirela.

“Baina zu ez al zinen tabernetara etortzen zinena?” “Bai, baina beste zeregin batzuk ere baditugu”. Eta, orduan, uste dut, nire ustez aldatuz doa, leialtasun moduko bat sortu dugu udalerriekin, nahiz eta alkatea aldatu, edo eskualdeko teknikaria edo koordinatzailea aldatu.

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Hori horrela, prozesu horietan lortutako esperientzia, Ttipi-Ttapan baliatzeaz gainera, Osasun Publikoko teknikariek osasuna sustatzeko egiten dituzten gainerako jardueretan ere baliatu da.

Ttipi-Ttapa bezala, programa hobeak edo okerragoak atera daitezke, edo beste gauza batzuk; baina, ea, nire ustez, behintzat, izango dute udalerrietan egiten ari garenaren ezagutza-dinamika bat, eta nire ustez, hori behintzat, egin da. Konfiantza dute beste bat egiteko [...].

Erraztasunak ematen dizkiguna da ez dela jarduera hasi berri bat; 2012an hasi ginen, 2013an... (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Komunitatean aitortza lortzeko eta esperientzia lortzeko modua komunitatearekin partekatzeak ekarri duen ikaskuntzari esker gertatu da, eta hori denboraren joanarekin lortzen da, ezin da bestela.

Eta bideari ekin behar badiozu, beste udalerrri batzuetan hasi behar bada, beste leku batzuetan, ba, nire ustez, eskualdekoak nahikoa prestatuta egongo dira horretarako [...]. Beraz, hori ari dira ateratzen, zera, eskolako gaztetxoak etortzen badira, gurekin ere badute konfiantza zentroetan, eta, beraz, egin ditzakegu lan batzuk ere [...].

[...] Hernaniko deribazioan, psikologoarengana joan ordez Ttipi-Ttapa joateko agindu zitetenean [...], niretzat xehetasun horrek marka berezi bat ezarri du ibilbidean, lortzen joan garen udalerrietan, martxan jarriz joan garen udalerrietan. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Hori horrela, proiektua lehen aldiz pentsatu zenez geroztik igarotako denbora da giltzarrietako bat, Ttipi-Ttapa egungo fenomeno bihurtu izateko Tolosa-Goierrri eskualdean.

Nik uste dut ondo bereizi behar dela hasiera izan zena, Zumarraga-Urretxun gauzak nola aterako ziren ez genekienean, modu batean egitea proposatzen genuen; Tolosarekin, aldaketa nabarmena egon zen gizarte-kohesioaren ikuspegitik [...]

Eta probak egiten hasi ginen, eta, tira, ikusi genuen paperean gauzak oso ederrak direla, baina gero, testuinguruan, egokituz joan behar dela. Izan ere, oso polita da lan zientifikoak egitea, zuek egiten ari zareten modura; baina, gero, errealitatean, zera bilatu behar da [...]. Guri positiboa

iruditzen zaiguna da leku gehiagotan jartzen joatea; orduan, jarduera gehiago ari dira sortzen, oso dinamikoa da. Kontua ez da atera egingo naiz edo ibiltzera joango naiz eta beti ibilbide bat dago; aldiz, aldagai asko daude, eta aldagai horien bidez gizarte-kohesioa ari gara lantzen, ez da jarduera fisikoa bakarrik. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren ildo estrategikoek babesten dute Ttipi-Ttapa, eta, zehazki, 2013-2020 Osasun Planak, eta zahartze aktiboarekin lotutako jarduera-ildo estrategikoek, jarduera fisikoa eta sozializazioa sustatzeari buruz hitz egiten baitute horiek. Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzak, Tolosa-Goierriko eskualdearen bidez, praktikara eman nahi du testuinguru hori, eta horiek izan ziren, hain zuzen ere, Ttipi-Ttaparen hastapenak.

Tira, Sailak baditu jarraibide batzuk, ez? Kontuan hartuta Sailaren eta legealdiko ildo estrategikoetan berariaz sartzen direla, ez? Pertsonen artean jarduera fisikoa sustatzea, hor jada sartuta egongo litzateke, eta, gero, indarreko Osasun Plana ere badugu, ez? 2013-2020koa. Haren jarduera-arlo estrategikoetako bat da zahartze aktiboa, eta hor ere berariaz hitz egiten da jarduera fisikoa eta sozializazioa sustatzeaz. Beraz, ikuspegi horretatik, nire ustez ondo zehaztuta daude jarraibideak. (t)

Osasun Publikoko zuzendariordea

Tira, ba bat izan zen, pixka bat saltsan genbiltzan X eta ni, ea zer egin zitekeen Lazkaon, eta, bueno, han ez genuen ezer asko lortu, baina asko ikasi genuen. X-k proiektu bat zuen, Ttipi-Ttapa, eta aztertzen hasi ginen, eta, tira, probak egiten! (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak laguntza eman zuen tokian-tokian Ttipi-Ttapa proiektuak sortzeko, Osasun Publikoko teknikarien parte-hartzearen bidez, eta laguntza ekonomikoak emanez, jarduera fisikoa sustatzeko proiektuak finantzatzera bideratutakoak.

Laguntzei dagokienez, ba, ea, laguntza teknikoa, Zuzendariordetzako teknikariak, eta eskualdeetako teknikariak, ez? Oso lan garrantzitsua ari dira egiten, horrelako ekimenak sustatzen. Eta, beste alde batetik, laguntza-aginduak, ez? Horrela, aurkezten duten proiektuaren arabera, sustapen-jarduerak gauza ditzakete udalerrian. (t)

Osasun Publikoko zuzendariordea

Parte-hartzaileek onartzen eta balioesten dute Osasun Publikoko atalak paper garrantzitsua izan duela proiektuaren sustatzaile gisa. Bereziki goraiatzen dute Tomas Plazaolak egindako lana; Plazaola Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdeko koordinatzailea izan zen 2018ra arte.

Normalean, ez dira oso udaletxe handiak izaten; ni alkatearengana agertzen naiz, prozesua zertan datzan azaltzen diot, eta, ondo iruditzen bazaio, gizarte-zerbitzuekin hitz egiten hasten gara, gutxi gorabehera proiektua zuzendu dezaketela iruditzen zaigun zerbitzuekin, edo alkateari iruditzen zaion beste atalen batekin. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Guri etorri eta bultzada bat eman ziguna izan zen Tomas Plazaola, Osasun Saitetik hau egin behar zela...

Kirol-alorreko udal-teknikaria

3. E: Ez, ez, ez; esan nahi nuen gurean hark bultzatu zuela. Ez zitzaigun inoiz halakorik bururatu, ez genuen inoiz imajinatu ere egin, eta Tomas etorri zen, proposatu zigun, ondo iruditu zitzaigun eta esan genuen, tira, aurrera! (t)

2. E: Eta kudeaketa guztiez eta koordinazioaz arduratu zen, e! (t)

3. E: Zorionez, kudeaketa guztiak egin zituen. Nire ustez Osasun Publikoko atalaren arrakasta handia izan da koordinazioaren alorrean. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

2. G: Gure kasuan, Tomas hasi zen bilerak deitzen, Hernanin. Eta ia elkarte guztiak hasi ginen hau sortzen, eta gozamina da egia esan! Izan ere, jende dezente etortzeaz gainera, 120 bat, baita 130 ere batzuetan, batzuetan 80 edo 90, eguraldiaren arabera. (t)

Urnietako boluntarioen TF

3. Lankidetzak eta etorkizunerako erronkak

3.1. Sareen garrantzia

3.1.1. Komunitatea hobeto ezagutzea

Ttipi-Ttapa lankidetzan eta komunitatean oinarrituta eraikitzen da, komunitatearen zati handi bat ordezkatuta duen sare batean; hori proiektuaren funtzionamenduaren gakoetako bat dela jotzen da.

Tira, nire ustez, antolaketan inplikatu garen elkarteak edo erakundeak, ez? Hau da, nire ustez guztiok saiatzen gara, bueno, ba honen aldeko apustua egiten eta inplikatzen. Hain zuzen ere, horren alderdi sendoenetako bat da sare bat sortzea lortu dugula, eta sare horretan honekin guztiarekin konprometitu garela [...].

Ba gehien aberastu duena, edo zertarako balio izan duen da, bueno, ba koordinazio-sare bat finkatzeko parte hartzen dugun eragileon artean: anbulatorioa, elkarteak, udala... Nire ustez, hori, bere horretan, nahiko ona da, eta gure esperientzia aberasten du. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Parte-hartzaile guztiak Ttipi-Ttaparen lorpen gisa aipatzen dute udalerrri bakoitzean sortzen den sarea, eta Ttipi-Ttapaz harago lan egiteko sortzen diren aukerak, sare horren bidez tokiko mailan gara baitaitezke.

Tira, azken finean, hemendik beste lankidetzak batzuk sor daitezke; sarea baduzu dagoeneko, beraz, zentzu horretan, uste dut inbertsio moduko bat izan dela, ez dakit nola esan. Hau da, sare hori sortu izana oso positiboa da beste lan batzuetarako ere. Hortaz, iruditzen zait positiboa dela oro har, bai. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

1. irakaslea: Horrek berak ia beste ekintza batzuk egiteko gogoia [...] eta borondatezko lan hori, zerbitzuak eskaintzea gizarteari, Udalari, Ibarriari, herritarrei, eta ...estrategia planean hor txertatu dugu

Ibarra ikastetxeko TF

Ttipi-Ttapak ahalbidetu du erakundeak, boluntarioak (elkarteak eta beren kasa diharduten pertsonak) eta parte-hartzaile «ibiltariak» udal-proiektu komun baten parte sentitzea.

Logoak eta horrek guztiak nortasuna ematen dio, baina aitzakia bat besterik ez da, kohesioa egon dadin, edo inplikatuko diren boluntarioak egon daitezzen; hau da, hau gurea da, eta guk kudeatu behar dugu. Nire ustez horixe da filosofia. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Orain ezagututa eta beraiekin izandako harremanak kontuan hartuta, nik ahal dudala ez dut faillatzen. Batzuetan gertatzen zait izaten ditugula halako bilera pila eta ez daukat uztea beste erremediorik... eta badakit hor egongo direla, eta uste dut besteei ere gauza berdina gertatzen zaiela.

Kirol-alorreko udal-teknikaria

Erakundeen eta elkarten arteko harreman horiek komunitate-dinamika bihurtzen dute Ttipi-Ttapa; hain zuzen ere, oinarri duen komunitatea hobeki ezagutzeko bidea ematen du, eta udalerrri bakoitzeko beharretara eta errealitatera egokitzen da.

5. G: Nire ustez Osakidetzaren ekarpena oso garrantzitsua da, bai eta Udalaren ekarpena eta Udalarekiko harremana ere. Nire ustez, hobetu egin da, ireki egin delako, guztiak gaudelako mahaietan, guztiak gaudelako leku guztietan, eta elkar ezagutzen goazelako, eta errealitatea ezagutzen. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

1. irakaslea: Ba niretzat berria izan da, igual... elkarte batzuk igual ez genituela ezagutzen.

1. ikaslea: Garagune, adibidez.

Ibarra ikastetxeko TF

Nire ustez jarduera honen balioetako bat da egokitz joaten dela herri bakoitzeko kulturaren eta beharren arabera. Egokitz joaten da, eta batek ez dauka zertan beste baten kopia bat izan beharrik. Badaude gidoi jakin batzuk, baina herri bakoitzak bere kultura du, eta kultura horretara egokitz joaten da. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Batzuetan, hirigintza-beharrak hautemateko ere balio izan du Ttipi-Ttapak. Irteeretan mugikortasun murriztua duten pertsonak egoteak, gurpil-aulkian doazenak, urritasunak hautematen lagundu du; horiek konpontzen ari dira pixkanaka, eta, horrela, ingurune irisgarriagoak eta seguruagoak sortzen.

2. E: Gu, Tolosan, gurpil-aulkiekin ateratzen hasi ginenean, tira, lehen kaos hutsa zen, zuloak zeudelako hemen... halako leku batzuk han... eta teknikariari esaten genion, X-ri, eta hau, zer? Hemen zulo bat dago eta ia aulkiarekin sartu naiz, eta muturrez aurrera erori naiz ia. Ondo da! Jasota gelditu da. Eta, handik urtebetera bizpahiru gauza konpondu zituzten. (t)

Urnietako boluntarioen TF

2. G: Gu, orain, hori dena ari gara egiten [...]. Ba herrian dauden urritasunak, edo banku bat behar duena baino baxuago dagoela, eta, beraz, ezin direla eseri, oso deserosoa delako, edo eskailera gehiegi daudela nonbait, eta ez dagoela beste aukerarik. Azken batean, herrian ikusten ditugun gauza guztiak; onena da Udalari proposamenak egiteko aukera dugula, eta, orain arte behintzat, jaramon egiten dute; esan nahi dut beharrak asetzeko nahia dutela haiek. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

3.2. Parte-hartzearen zenbait gako

3.2.1. Irisgarritasuna eta boluntarioen laguntza: Laguntzearen zentzua

Erakundeen antolaketaz eta egitekoez gainera, guztiek aho batez onartu dute boluntarioek izandako paper protagonista eta autonomia, eta arrakastarako eta prozesuek denboran irauteko gakotzat jo dituzte.

Boluntariotza sendoa eta ona dugu, oso ekarpen onak egiten dituen, eta ideia onak eta erantzuteko gogo dituen. (t)

Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzailea

Elkarteak, haiengatik izan ez balitz, Osakidetzak eta guk ero moduan ibili beharko genuke, edo jende espezializatuarekin harremanetan jarri paper hori betetzeko berariaz. Beti behar da norbait izenak jasotzeko, txartelak zigilatzeke, salda prestatzeko, zerbitzatzeko... Boluntariorik gabe honek ez luke funtzionatuko. (t)

Zinegotzia

Boluntario gisa jarduten duten hainbeste talde izatea izugarria da: batek zerbaitek ahazten badu, bestea gogoratzen da; batek ikusten ez duena, besteak ikusten du agian. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Boluntarioek lan garrantzitsua egiten dute mendekotasun-egoeran dauden pertsonei laguntzen. Haien lana behar-beharrezkotzat jotzen da, mendekotasun-maila handieneko kolektiboek parte hartu ahal izateko, egoitzetan eta eguneko zentroetan dauden pertsona nagusiek; nabaria da kolektibo horiek haien lanagatik sentitzen duten esker ona.

Bai, bai, guri, behinik behin, asko errazten digu, aukera ematen digu, haiei eskerrak... Boluntariorik egongo ez balitz, ba agian pertsona gutxiagoak parte hartu ahal izango lukete, baina boluntarioak egoteak erraztasuna ematen dizkigu [...].

Ba, formalki, esan dezagun 2 boluntario ditugula; laguntza ematen dute, eta bestela ezin parte hartu izango luketen pertsonak egoteko bidea ematen dute. (t).

Garaguneko arduraduna

Ba guri motibazio gehien eman ziguna izan zen pertsona nagusiei laguntzeko geundela, behar gehien zituztenei. Orduan, ikusi genuenean egoitzako talde osoak, eguneko zentrokoek eta herriko beste pertsona batzuek parte hartuko zutela, ba haiekin jarri ginen buru-belarri. (t)

Nagusilaneke arduraduna

Ikastetxeetako ikasleek boluntario gisa egindako lana ere nabarmentzen da, hainbat pertsonak parte hartzea posible egiten baitute. Irteeretan, haien egitekoetako bat da gurrpil-aulkian daudenei laguntzea.

5. E: Gero, boluntarioak parte hartzen hasi zirenean, ikastetxeetakoak eta guzti, a zer alde! Buff! Buff! Lehen ezin zenituen atera, baina, orain, esan zieten: "Aizue! Nahi duzue hau egin,

mesedez?” “Nola?! Zenbat behar dituzue?” Eta batek esan zuen: “Ba 60 beharko ditugu agian”.
“Lasai, 100 ere bai, eta guztiok eramango ditugu”. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

Gainera, ikusten da pertsona jakin batzuk Ttipi-Ttapara bertaraten direla parte-hartzaile gisa, baina boluntario gisa jarduten dutela elkarte bateko kide izan gabe formalki; ibilaldietan, gehien behar dutenei laguntzen diete modu naturalean.

2. E: Asko gure kasa etortzen gara. (t)

4. E: Behar duenari, lagundu egiten diot. Ez dela laguntzarik behar, ibiltzera joaten naiz; dena delakoa. (t)

1. G: Egun batean zigilatu egiten dute, beste batean zera... (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. E: Zer esan dizuet nik lehen; ni nire kasa joaten naiz, baina norbaitek laguntza behar badu, lagundu egiten diot, baina ez naiz boluntarioa. (t)

Ordiziako parte-hartzaileen TF

3.2.2. Jarraitutasuna erreferentzia gisa

Jarraitutasunari eustea giltzarri gisa jotzen da parte-hartzaileen asebetetzerako eta motibaziorako. Talde fokaletan eta elkarrizketetan parte-hartzeari eusteko gakoei buruz galdetzen denean, zenbait arrazoi aipatzen dituzte: lankidetzan diharduten eragileak eta pertsonak askotarikoak izatea, Osakidetzako langileek ere parte hartzea irteeretan, lanen banaketa, antolatzaileek egiten duten jarraipena, eta ordutegia; horiek guztiak giltzarriak dira, Ttipi-Ttaparen jarraitutasuna bermatzen dutenak.

1. **elkarrizketatzailea:** Eta, zuek antolatu orde, Udalak antolatu izan balu? [...] Arrakasta bera izango luke? (t)

1. G: Ba agian ez. (t)

1. E: Niri zer gertatu zitzaidan esango dizut. Niri hau aipatu zidatenean, esan zidan pertsonak esan zidan Udalak antolatu zuela, Udalak nahi zuela hau abiaraztea, eta... Boluntarioak, ba, horretarako, jendearekin joateko. Eta, nik — Itxaron, itxaron, Udalak antolatu al du? — Bai, etxean dagoen jendea ateratzeko, eta hauei eta besteei laguntzeko. Eta nire erantzuna hau izan zen: — Ba Udalak antolatu badu, deitu diezaiola Udalak jendeari, eta ordaindu dezala [...]. Baina gero esan zidaten ez zela horrela, — Eta nola ba? Hurrengoan etorri nintzen, eta esan nuen: — Hau ez da niri kontatu zidaten bezala, guztiz desberdina da. Eta berehala hasi nintzen parte hartzen. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

Nire ustez, erakundeek bakarrik antolatuko balute, honelako zerbait izango litzateke: “Tira, hemen duzu funtzionario arduradun bat, eta horrek egunero hau eta bestea”. Zorrotzegia eta garestiegia izango litzateke. Eta ez litzateke hain aberasgarria izango. (t)

Zinegotzia

Guztiek parte hartzea, Udalak, Osakidetzak, eta, aldi berean, kiroldegiek eta teknikariek, kirolaren esparru horrek... Nire ustez hor dago aberastasuna, eta herriko jendea horri esker animatzen da; nire ustez giltzarria da hori ere. (t)

Garaguneko arduraduna

3.2.3. Bateragarritasunak eta bateraezintasunak Ttipi-Ttaparekin

Zenbait jarduera programarekin bateraezinak direla jotzen dute, eta ezin dela bietan parte hartu. Adibidez, gimnasia; parte-hartze handia duen jarduera bat da gainera.

3. G: Asteazkenetan eta ostiraletan ehun eta piko pertsona joaten dira gimnasia egitera kiroldegira, hiru txandatan, 8:30, 9:30 eta 10.30ean. Beraz, horiek gimnasiarik izango ez balute, hona etorriko lirateke. (t)

4. E: Gimnasiara joaten dira, eta ezin dira etorri. (t)

3. G: 145 erretiratu joaten dira hara. Ni duela bi urte arte joaten nintzen, baina lunbalgia batek ez dit uzten. (t)

3. G: Baina kontuan hartu gimnasia-saiora joaten den jendea ez dela etortzen. Zu etortzen zara, eta X ere etortzen da, baina 3 edo 4 dira, 142tik. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

Ttipi-Ttapan ez parte hartzea eragiten duten oztopo edo arrazoi gisa, taldean ateratzea gustuko ez izatea aipatzen dute lehen postuan. Beste arrazoi batzuk dira kanpotik pentsa daitekeela talde itxia dela, eta behar dutenei laguntzeko pazientziarik ez izatea.

Elkarrizketatzailea: Batzuek ez dute parte hartzen; zergatik da hori? (t)

Tira, gerta daiteke batzuk taldearekin urduritzea, talde handiarekin; nahiago izango lukete agian bakoitzarekin banaka egon, giro lasaiagoan, baina, esan dezagun [...]. Parte hartzen ez dutenak, izan daitezke, ba, agian egotea, horrela talde handian eta zehaztutakoa den zerbaitetan, ba guri gerta dakigukeen eran, agian gauza batzuetan, tira! Talde handiak ez zaitu erakartzen. (t)

Garaguneko arduraduna

3. G: Egia esan paseatzen zoazela, bakarrik paseatzen doazen erretiratu askorekin topo egiten duzu. (t)

Denak: Bai. (t)

1. **elkarrizketatzailea:** Eta zuen ustez, zergatik ez dute joan nahi haiek? (t)

2. G: Agian itxi samarrak direlako. (t)

3. G: Gu egiten ari garen ibilbide bera egin baduzu, ba taldean ez joateagatik. (t)

Hernaniko parte-hartzaileen TF

2. G: Beste batzuek ez dute harremanik izan nahi jendearekin. (t)

Denak: Hori ere bai.

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

Askok igual pentsatzen du talde itxia dela ez? eta horretara apuntatu egin behar dela edo. Pixkanaka esplikatzeko diozunean nahi duenean joatea daukala eta ez daukala inongo obligaziorik, eta daukala errekonpentsa hori... txartela seilatu eta edozein momentuan joatea daukala... Beno, jende pila bat joaten ari da, eta nik uste, gero eta gehiago doala gainera.

Lurramendiko gizarte-langilea

1. G: Nire emaztea badabil... Baina, tira, ni zergatik ez? Hasteko, azken aldian oso pazientzia gutxi dudalako [...] ez dut pazientziarik. Funtsean, horregatik. [...] Bai, oso zaila egiten zait. Zera, joaten den jende nagusiarekin... Noski, joaten direnak, ez daude oso ondo. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

Beste batzuk joaten dira ibiltzera beren kasa beste ordu batzuetan, eta ez dute taldearekin bat egiteko beharrik ikusten, edo iruditzen zaie Ttipi-Ttapak erritmo motelegia duela haientzat.

3. G: Paseo partikularretan ibiltzen gara. Gu gure kuadrilatxoarekin ateratzen gara egunero. (t)

2. E: Hauek beti joaten dira, nik etxetik ikusten ditut pasatzen. Ni ere bai; arratsaldeetan joaten naiz nire alabekin. (t)

3. G: Hau guztia hasi baino lehen, gu antolatuta geunden lagun gisa; egunero ateratzen gara, eta 25 urte daramatzagu jada. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

1. G: Ez du gogorik, edo... Nahiago du beste ordu batzuetan ibili. (t)

1. E: Nire lagun batzuk beren kasa ibiltzen dira, baita ere. (t)

1. G: Ez dute ordutegira egokitu nahi. (t)

1. G: Ni, ni nire kasa ibiltzen naiz. (t)

2. E: Izan ere, nik nire erritmoa hartzen dut, eta nire erritmoa bakarrik, esaten dizute. (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

4. G: Nik paseo bat ezin dut egin. Gehiago estutu behar dut nire burua, paseotxo bat ematea ez da nahikoa. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

Pertsona batzuek esan dute, besterik gabe, ez zutela programaren berri.

1. E: Nik nire ama eta amaginarreba izan ditut, eta ez nekien hau zegoenik. Ikusten nuen jende nagusiarekin zebilen jendea, baina ez nuen honen berri, eta ama zaintzen egon naiz duela 4 urtera arte, eta amaginarreba zaintzen duela 5 urtera arte. Hau da, nire etxean izan ditut biak; baina ez nekien hau zegoenik. (t)

1. elkarrizketatzailea: Ia badira bi urte hau hasi zela. (t)

1. E: Bai, ikusi dut jendea, baina, boluntarioak zirela pentsatu izan dut, elkarte modukoak zeudela, inplikatura zeudela ba, adibidez, hitzaldi hau emateko eta gure iritzia emateko. Eta nik hori ez nekien. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

Parte hartu ez dutenen talde fokalaren diskurtsoak aztertzean, nolabaiteko nahasmena hauteman da; uste dute parte hartzea boluntariotza-lanekin lotuta dagoela, eta laguntzearekin bakarrik lotzen dute jarduera.

1. G: Zera, gauza bat da ibili nahi izatea, eta ni egunero ibiltzen naiz, eta beste gauza bat da ibiltzeko aukerarik ez duen jendeari lagundu ahal izatea. (t)

1. G: Tira (guztiek batera hitz egiten dute). (t)

3. G: Nik, nire aldetik, horrela antolatuta gaudenez, dagoeneko, ez gaude besteen mende, gure mende baizik. Ni, zehazki, ez naiz gai lagunarte bati laguntzera joateko, egia esan. Aldiz, egunero ibiltzen garen bezala ibiltzera joateko, paseotxo emateko, ba bai. (t)

Parte hartu ez dutenen TF

Pertsona batzuek ez parte hartzeko arrazoiak artean, hautematen da kolektibo kalteberetako pertsonekin goteak eragiten duen lotsa edo errefusa.

1. E: Agian, lotsagatik. (t)

4. G: Lotsagarria da. (t)

5. E: Zera, niri gizon batekin egokitu zait eta... Horiekin joango naiz ni? (t)

5. E: Bihar zu horrela egongo zara-eta! (t)

5. E: Zera ematen die, lotsa izango balitz bezala, gorpil-aulkian doazenekin joatea. (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. G: Tira, ba, pentsa dezakezu, nik esan berri dudanarekin, ni nola joango naiz atzeratu horiekin, adimen gutxiko horiekin? Ez, ez! Ez du hankarik ez bururik; asko adierazten du esaten duen pertsonari buruz, badaude batzuk... (t)

Ordiziako boluntarioen TF

Pertsona batzuek adierazi dute ez dutela jardueran parte hartzen, haien iritziz ez delako dagokien lekua; nagusientzako jarduera bat dela iruditzen zaie, edo Ttipi-Ttapako parte-hartzaile gehienak baino gazteagoak direla beraiek.

4. E: Batzuek aurpegi txarrez ere begiratzen dute. (t)

5. E: Iruditzen zaie gazteegiak direla gurekin egoteko, eta guztiz oker daude! (t)

2. G: Iritsiko zaie, iritsiko zaie bai; hau etorriko zaie. (t)

4. E: Hau iritsiko zaie, bihar edo etzi. (t)

2. G: Ba (etortzen ez direnetako) askori hori gertatzen zaie, lehen esan duguna, pixka bat zera daude... (t)

4. E: Ez dute nagusiekin zerikusirik izan nahi. Hemen zaharrak, ez hain zaharrak, eta zahartzeko bidean gaudenak. (t)

2. G: Hori da, hori da; edo oso zaharrak ikusten gaituzte haien alboan. (t)

4. E: Nik ez dut esan nahi zaharrak zentzu txarrean, gero! (t)

Tolosako parte-hartzaileen TF

2. G: Eta ni nola joango naiz zaharrekin, 70 urte dituzte eta! Ba, motel... (t)

Usurbilgo parte-hartzaileen TF

3.3. Etorkizunerako erronkak

3.3.1. Xede-hartzaileak

Kontakizunetan, Ttipi-Ttaparen hobetzeko moduko zenbait alderdi hauteman dira. Alde batetik, adierazi dute ez dela lortu populazio-segmentu jakin batengana behar beste iristea; etxeetan gehien bakartuta bizi diren horiengana, hain zuzen ere. Lortu beharreko erronkatzat jotzen da hori.

2. G: Gure nahia da oraindik etortzen ez diren pertsona guztiengana iristea, edozein arrazoi dela ere etortzen ez direnengana, inorekin hitz egiten ez dutenengana, sozializatzen laguntzeko. (t)

4. G: Guri lehendabiziko esan zigutena izandu zen etxean geldituta zeudenak ateratzen ikasi behar genuela, eta hori ez da iritsi oraindik, ez dakit nola egin beharko luketen, baina etxean geldituta dauden horiek geldituta daude, eta asko daude ba e! Lehen kalean ibiltzen zirenak gelditu dira! batzuk aszensorerik ez dutelako edo, gelditu dira txoriak kaiolan bezala.

Urnietako boluntarioen TF

Testigantza batzuen arabera, etxeetan isolatuta dauden pertsonak Ttipi-Ttapan parte hartzeko modu bat izango litzateke Osakidetzak, langileen bidez, pertsona horiek identifikatzea, eta jarduera egitea agintzea.

6. E: Kontsultara joaten direnean edo enfermerarekin edo, pues animatu eta... oraindik, jende asko dago etxean; hor medikuak asko dauka esateko: pixka bat atera zaitezke, talde bat dago, irten, eta...

Urnietako boluntarioen TF

2. G: Pixka bat desengainatuta gaude Osasun Zentroarekin; Osasun Zentrotik ez da inor agertu. Inork ez digu esan medikuak esan dit ibiltzea komeni zaidala, ona dela ibiltzea, eta ez zaigu inor agertu horrelakorik esanez. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

3.3.2. Osakidetzako langileak Ttipi-Ttapan

Testigantzen arabera, Osakidetzaren ekarpena garrantzitsua da, baina ez orekatua; pertsonalki konprometituta dauden langile batzuen parte-hartzea aipatzen da. Halaber, ikusi da Osakidetzako langile batzuek zailtasunak dituztela parte hartzeko, eta erakundeak baliabideak eskaintzea falta dela, Ttipi-Ttapa eta antzeko programak egin ahal izateko.

4. G: Kontrol-bilerak egiten ditugunean, [...], hasi ginenean etortzen ziren Osakidetzatik, medikua eta praktikantea etortzen ziren, erizaina ere bai; baina, gero, haiek ez dira agertzen. Noski,

normalean, lanean izaten diren orduetan egiten da. Dena den, niri medikuak esan zidan behin, joan behar dut beste egun batean, baina, azkenean, ba ez. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

Dena den, Osakidetza oso sendo hasi zen, eta 3 edo 4 pertsona etortzen ziren haiei zegokienean. Orain, berriz, ez dakit, murrizketengatik edo, ez dakit zergatik izango den, azkenean X etortzen da, eta gutxi gehiago. (t)

Nagusilaneke arduraduna

4. G: Orain dela urte eta erdi hasi zenetik, Osakidetzako langileen ekarpena nabarmen murriztu da, baina, ziurrenik, hona etortzeko zailtasun asko dituztelako. Izan ere, hemen, beste edonor bezala egiten zuten, Nagusilaneke edo beste edonor bezala. Etorri, zigiluak jarri, salda prestatu, banatu; beste edonoren paper bera egiten zuten, eta oso garrantzitsua zen. Hori, etorri ahal izateko orduak murriztu dizkiete, ezin dute etorri lanean daudelako... Baina nire ustez Osakidetzaren ekarpena oso garrantzitsua da. (t)

Ordiziako boluntarioen TF

1. G: Gauza batek bestea dakar; normalean, zuk agenda-arazorik ez duzunean, edo topera ez zabiltzanean, ba, baliabideak daude, ordezkapenak, zu lasaiago zabilta, eta, beraz, gauza batek bestea dakar. Badaude baldintza batzuk jardueran parte hartzea errazten dutenak, eta, horregatik, iruditzen zait dena lotuta dagoela. (t)

3. E: Lidergo kontua ere bada, ez? Esan nahi dut, Osakidetzak, erakunde gisa, lider papera egiten badu zenbait jardueratan, ba, zera jarri behar du, esan nahi dut... Noski, bultzatu egiten du, eta bitartekoak jarri behar ditu hori guztia aurrera atera dadin, bere proiektuan sartzen bada. (t)

2. G: Tira, beste hainbat gauzatan bezala, Osakidetzak bere diskurtsoan sartu du hau. (t)

5. E: Ni ez naiz ari diskurtsoari buruz, ez naiz ari diskurtsoari buruz. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

3.3.3. Hobetu beharreko arloak

Kasu batzuetan, hobetu beharreko arlo gisa aipatu da beste kolektibo batzuegana iristea, biztanleria guztiak probestu ahal izateko proiektua, eta ez nagusiek bakarrik.

Badago zeregina; ez bere horretan eustea bakarrik, parte-hartzaile gehiago lortzea ere bai, boluntario-kolektibo gehiago erakartzea, helburuak dibertsifikatzea. Lehen ariketa fisikoa bazen, eta orain harreman sozialak ere bai, gero izan daitezke belaunaldi arteko harremanak. (t)

Zinegotzia

5. G: Pertsona nagusienei buruz ari gara, eta nire ustez hori ez da profila, profilak onurak jasotzen dituen herriko jende guztiarena izan behar duela, hitz egitea guztiontzat baita ona, partekatzea ona da denontzat, beraz, hortik abiatuta... Oso kolektibo zehatza da, eta, nire ustez, hona etortzeko aukera izango lukeen jendea, ez dute beren burua hemen ikusten, uste dutelako ez dela beren espazioa, ez? (t)

Ordiziako boluntarioen TF

Ekimenaren hedapen urria ere aipatu da hobetzeko arlo gisa.

3. E: Nire ustez, ez da behar beste propaganda egiten. Izan ere, kultur-etxean film bat dagoenean, adibidez, nik alderaketa egiten dut, eta, zera, aldizkarian agertzen da, eta kultur-etxeko atean agertzen da, espazio handi bat dago iragarkia jartzeko, eta gero kale guztietan dago pegatinaren bat. Baina gurea... Ez, ez; ez dago hainbeste. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Elkarrizketatzailea: Parte hartu aurretik ezagutzen al zenuten?

1. irakaslea: Nik adibidez, ez.

1., 2., 3. eta 4. ikasleak: Ez, ez, ez.

2. ikaslea: Nik uste dut kalean jartzen badituzte poster batzuk edo, jende gehiago etorriko dela.

1. ikaslea: Bai, pixka bat gehiago.

3. ikaslea: Publizitatea falta zaio (barreak).

Ibarra ikastetxeko TF

3.3.4. Ebaluatzea, beharretara berregokitzeko

Parte hartzen duten eragile guztiek Ttipi-Ttapari balorazio positiboa emateaz gainera, garbi gelditzen da guztiek garrantzi handia ematen diotela proiektuaren ebaluazioari.

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen programa hau. Izan ere, ezin da zalantzan jarri. Ona da bere horretan; egiaztatuta gelditu da bere egitekoa betetzen duela. [...]

Guk urteko balorazioa egiten dugu, Sailaren urteko memoria egiten dugunean; bukatzeko egongo da jada. Programa aztertuko dugu, zer bilakaera izan duen ikusiko dugu eta balioetsi, guk baititugu datu behien; balorazio guztietan parte hartzen dugu. Oraingoz, ondo dago. (t)

Zinegotzia

Nire ustez programak bilakaera bat izan behar du, denak bezala [...]. Nik analisia egiten dudanean, oinarrizko leku berera iristen naiz beti, ez? Zertarako sortu dugu hau? Zein ziren hasierako helburuak? Ez? Eta ariketa fisikoa sustatzeaz hitz egiten genuen, baina baita harreman sozialak sustatzeaz ere, behar handiena duten pertsonen zuzenduta. [...] Baina ez badugu analisia pixka bat berritzen, berriz hasteko, nire ustez akatsa izango da hori. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Ebaluazio-bilerak Ttipi-Ttaparen etapetako bat dira, eta prozesuaren jarraipena egiaztatzen dute. Bilera horiek bizirik eusten diote programari; positiboa dena sendotzeko balio dute, elementu berriak sartzeko, eta/edo hobetu beharreko alderdiak hobetzeko.

Bi urtetik gora daramatzagu, eta ikusten da finkatu dela; dena den, akatsak zuzentzen joan behar da beti, hobetu beharreko alderdiak fintzen. Hileroko bilkuretan egiten dugu hori. [...]

Goazen berezi bat egiten dugunean, herritik ibilbide kulturala eginez D'elikatuz turismo-bulegora, orientazioa eta azalpenak emateko haiek guri. Edo saltokien gaia landu genuenean, Co-ordizian elkarrekin parte hartu zuen. Hileroko bileretan bururatu zaigunaren arabera, irekiz goaz. Ziurrenik, ikastetxeetara hurbildu nahi badugu orain, laguntza eskatzeko, Udaleko beste atal batzuk sartzen dira hor, hezkuntzako adibidez. Beraz, atal desberdinei eskatzen diegu laguntza. (t)

Zinegotzia

Hor, agian, ebaluazio-bilerak egiten ditugunean, aipatu ohi dute talde ertaina, eta batez ere luzea, tira, ba lehen jende gehiago egoten zela, eta parte-hartzaileen kopuruak igotzeari utzi diola, ez? Normalean esan ohi da, ez? Jende gehiago etortzeko ahalegina egin behar dela, baina tira. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Ebaluazioaren bidez, komunitateak proiektuan duen parte-hartzea gauzatzen da, irteeren antolaketan eta garapenean duten parte-hartzeaz harago. Ttipi-Ttapak sorrarazitako tokiko sarearen topaleku dira bilera horiek.

Tira, hori funtsezkoa da; jarraipen-ebaluazioak dira, gauzak birbideratzekoak, helburuetatik aldentu bagara. Guztion artean aztertze hori aberasgarria da. Aldi berean, hobetzeko balio duten alderdiak hautematen dira, eta aplikatu egiten dira. Herritarren parte-hartzea eraginkorra eta erreala izatea ahalbidetzen du horrek. Izan ere, Udalekoek edo Osakidetzakoek esaten badugu zer egin behar den, eta nola egin behar den hobetzeko, ba hori galdu egiten da. Alabaina, hau oso aberasgarria da, parte hartzen duten guztiak egoten direlako: Nagusilan, Kimetz, eta zerikusia dugun guztiok, Ordizia Kolore eta abar. Nire ustez aberasgarria da. (t)

Zinegotzia

Bai, hobetu... Tira, hor gabiltza pixka bat. Hileroko balorazio-bilerak egiten ditugunean, hain zuzen ere, proposamenak biltzen ditugu, ez? Hobetzeko aukerak, hau eta beste... E, zera, jende oso dinamikoa dago, eta gauzak proposatzen dizkizute, ez? Hau da, ba, ea, zergatik ez dugu probatzen hau, edo zergatik ez dugu ibilbide berezi bat egiten, berria den zerbait sartzeko, hau eta beste... Esan nahi dut, nire ustez sortzen dira gauza berriak; hau da, ez gaude geldi, ulertzen? Proposamenak sortzen dira, bai. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria

Elkarrizketatzailea: Boluntarioak Ttipi-Ttaparen ebaluazio-bilerak egiteko biltzen zarete; guztiak parte hartzen duzue ebaluazio-bilera horietan? (t)

Zenbaitak: Bai, boluntario asko, bai. (t)

2. G: Gure kasuan, esan dezagun, talde bakoitzeko ordezkari bat, udala barne, bai eta osasuna, anbulatorioa, eta gainerako taldeak, odol-emaileak, hau, bestea, guztiak, guztiak, baita zaharren egoitzakoak ere. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Eragileak ados daude ikerketa-azterlan honi balioa emateko orduan; adierazi dute ondo egindako lana baieztatzeko aukera emango duela, proiektu osoaren ebaluazio orokor bat egiteak. Eta beste udalerrri batzuekin esperientziak trukatzeko ere balioko du.

Ea, ba, nik itxaropen handia dut, ikerlan honen emaitzak ikusteko. Izan ere, beti entzun izan dut oso garrantzitsua dela gure programaren gisako programetan ebaluazioa egitea, eta beti aipatzen ziren ebaluazioaren atalean zeuden urritasunak. Beraz, ebaluazio kualitatiboko azterlan serio bat

egitea, ez? Eta ebaluazioak baieztatzea, baieztatzea espero dut, ez? Emaitzak oso positiboak direla, ez? Eta merezi duela, ez? Ttipi-Ttapari buruzko ikerlan zehatz honek, baita kanpora atera ahal izatea ere, ez? Beste ikerlan batzuetara, beste esku-hartze batzuetara, hobe esanda, eta eraginkortasuna agerian gelditzea; ba, iruditzen zait, emaitzak ikusteko irrikatan nago. (t)

Osasun Publikoko zuzendariordea

2. G: Orduan, gu aldizka biltzen gara, eta gauza guztiei buruz hitz egiten dugu, hemen bezala; entzuten ari naizen gauza batzuk hara eramango ditut. (t)

3. E: Barkatu, Hernanikoak, zer egunetan ateratzen zarete zuek? (t)

2. G: Asteazkenetan ateratzen gara beti. (t)

3. E: Ikusi nahi dut, nolabait, nola egiten duzuen ikusi nahi dut, ideiak hartzeko. (t)

Urnietako boluntarioen TF

Elkarrizketatzailea: Zer iruditzen zaizue gauzatzen ari garen ebaluazio-proiektu hau, beharrezkoa iruditzen al zaizue? (t)

3. E: Bai, nire ustez proiektu guztiak ebaluatu behar dira, ez? Bestela, ez dakigu zertan ari garen. (t)

Osasun-alorreko langileen TF

Elkarrizketatzailea: Bale... Eta zer iruditzen zaizu, ba, egiten ari garen ebaluazio-azterlana? (t)

Bai, hau da, iruditzen zait beharrezkoa dela; izan ere, batzuetan, dinamika jakin batzuetan sartzen gara, eta, ez baditugu analizatzen, ba ez dakigu norantz bideratu behar dugun, ez? Edo zer zuzendu behar den, gauza berriak sartu behar diren, zeintzuk. Orduan, beste edozein prozesutan bezala, oso interesgarria iruditzen zait ebaluazioa egitea, bai. (t)

Gizarte Zerbitzuetako udal-teknikaria



EZTABAIDA

Ikerketa honen emaitzek agerian utzi dute osasuna sustatzeko esku-hartze komunitarioak oso konplexuak direla, eta ebaluazio-ikuspegiak eta -metodologiak errealitate horretara egokitu behar direla, eta hori egitea zaila dela (17, 18, 31). Metodo eta prozedura kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzeari esker, eta horiek aztergai ditugun testuinguru eta herrien eskakizunetara egokitzeari esker, aurkikuntza interesgarriak egin ditugu, ikerketaren helburuei erantzuten diotenak. Osasun Publikoko eta Lehen Mailako arretako eragileek parte hartu dute ikerketa-taldean eta garapenean, ikerketa-ikaskuntza dinamika bat gauzatu da; horri guztiari esker, ebaluazioaren «mapa» ebaluatu beharreko «lurraldera» hurbildu da, ikerketa-prozesuaren kalitatean arreta berezia jarrita. Hala eta guztiz ere, elkarriketa bat ez da egin, eta hasieran aurreikusitako «parte hartu ez dutenen» bigarren talde bat ez da osatu, eta beste talde bat banakako elkarriketa bihurtu da; horrek nolabaiteko mugak eragin ditu, eta ez dira ahaztu behar testuinguru horren berezitasunak emaitzen transferigarritasunean.

1. Esperientzia arrakastatsu baten baieztapena

Azterlanak egiaztatu duen lehenengo alderdia da Ttipi-Ttapako eragileek eta parte-hartzaileek balorazio arrakastatsua egiten dutela. Balorazioa oso positiboa da; galdetegietan zein sakontze-lan kualitatiboan, jarduera fisikoaren esparru zehatza hartzen du barnean, eta, aldi berean, gainditu egiten du. Esku-hartzearen dimentsio komunitarioak eta haren garapenean hainbat antolaketa-dinamikak bat egin izanak, dirudienez, beste eragin batzuk ere baditu, parte-hartzaileek lehenengoak bezain edo are onuragarriagozat eta osasungarriagozat jotzen dituztenak.

2. Partekatzeko irakaskuntza batzuk

2.1. Dimentsio anitzeko osasun komunitarioa

Batera ibiltzeko jarduera horri esker, etxetik ateratzeko, harremanak izateko eta «bizitzaz gozatzeko» gai den pertsona gisa ikus dezakete beren burua adinekoek, eta besteek ere horrela ikus ditzaten lortu. Hainbat bizipen aipatzen dituzte: aspaldiko kideekin eta lagunekin topatzea berriz, harremanak berreskuratzea, ezagunen kopurua areagotzea eta kalean elkar ezagutzea, agurtzea eta hitz egiten gelditzea. Gainera, elkar ezagutzeko eta harremanak izateko aukera eman die Ttipi-Ttapak auzo desberdinetako pertsonari. Hori horrela, inkestetan, adin nagusieneko pertsonak edo bakardade gehien sentitzen dutenek eman dituzte puntuazio altuenak. Alabaina, asebetetzea ez dator jasotzen den horretatik bakarrik; ematen denetik ere badator.

Hala, positibotzat jotzen dira jarduera fisikoa sustatuta lortutako eraginak, baina onurak askoz zabalagoak dira. Konpainia izatea, ateratzea eta harremanak izatea, berezko giroetan jendea ezagutzea, jendeak norbera ezagutzea eta gozatea... Alderdi horiek guztiak osasungarritzat jotzen dira talde fokal guztietan. Erakundeetako teknikariek, langileek eta ordezkariak ere ontzat jotzen dituzte alderdi horiek, osasun mentalaren, sozializazioaren eta gizarte-kohesioaren ikuspegitik.

Horrek guztiak baieztatzen/berresten du osasunaren alorreko ekintza komunitarioak dimentsio ugari dituela. Eta nabarmendu da, halaber, funtsezko tresna dela gizarte-desberdintasunei aurre egiteko, eta eragin zehatza duela komunitateen ongizatean (32).

2.2. Parte-hartze komunitarioa eta aniztasun funtzionaleko pertsonen eta migratzaileen gizarteratzea

Ttipi-Ttapa programan, aniztasun funtzional intelektual eta fisikoko pertsonak parte hartzen dute, bai programaren diseinuan zein antolaketan, bai irteeretan, eta haien parte-hartze komunitarioa eta gizarteratzea sustatzen dira horrela. Lehen ezagutzen ez zituzten pertsonekin hitz egiteko eta harremanetan jartzeko aukera ematen die (gainera, gehienek ez dute aniztasun funtzionalik, fisikorik edo intelektualik), eta lagun berriak ere egiten dituzte (33). Pertsona horien gizarteratzeak poza, autoestimua, konfiantza, osasun mentala (34), ongizatea (35) eta erabakiak hartzeko gaitasuna (36) ematen ditu. Gainera, emaitzetan ikusten den eran, haien gizarteratzeak aniztasun funtzionaleko pertsonen kontrako jarrera negatiboak, estereotipoak, estigmak eta bereizkeria murrizten lagundu dezake (36-38). Funtsean, gizarte-inklusioak guztien osasuna hobetzea dakar (37, 39).

Aniztasun funtzionaleko pertsonen gainera, migratzaileek ere aktiboki parte hartzen dute programaren antolaketan eta irteeretan, zenbait udalerritan. Leku berri batera etorkin gisa iristeak egokitzapena eskatzen du, bai etorkinari, bai harrera-komunitateari. Gizarteratzea ikusten da, oro har, kulturarteko harremanetarako erantzun-eredu egoki gisa (40, 41), eta noranzko biko prozesu dinamiko bati egiten diote erreferentzia; izan ere, pertsona iritsi berriak komunitateetako sare sozialeko parte bihurtzen dira, eta haiengan berez gertatzen diren egokitzapenengatik, finkatuta dauden egoiliarren artean. Komunitateek oso paper garrantzitsua izan dezakete pertsona iritsi berriei laguntzeko prozesuan. Azterlan askotan ondorioztatu da komunitatearen parte-hartzea behar-beharrezkoa dela kapital soziala sortzeko (42-45). Hori horrela, parte-hartzaileek adierazi zuten komunitateko kide izatea espazio geografiko bat partekatzea baino gehiago dela; kide izatearen sentimendu bat dakar, batasun- eta onarpen-sentimendua, bai eta beste pertsona batzuei laguntzeko eta parte hartzeko nahia ere.

2.3. Gazteen parte-hartzea eta belaunaldi arteko loturak nagusiekin

Ttipi-Ttapak esperientziak, trebetasunak eta jakintza partekatzeko aukera ematen die gazteei eta nagusiei. Parte-hartzeak programan parte hartzen duten nerabeen zein nagusien ongizatean eragiten du (2, 46).

Belaunaldi arteko harremanak osasunaren hobekuntzarekin lotzen dira, bai eta gaixotasunak murriztearekin ere (47); horrela, nagusiek gero eta ahalmen handiagoa izan dezakete gaixotasun mentalei eta fisikoei aurre egiteko. Halaber, beren sareak handitzen dituzte, eta bakardade-egoerak eta isolamendua saihesten laguntzen die horrek; norberaren balioaren sentipena lantzen dute; eta aldaketak izaten dituzte aldarrean, eta bizitasun handiagoa izaten dute (48). Beren aldetik, emaitzek erakusten dute hobeto sentitzen direla, fisikoki zein psikikoki, horrelako programa batean parte hartu ostean, eta gehiago gozatzen dutela aisialdiaz, eta gazteekin jarduerak egiteko gogo gehiago izaten dutela (2).

Gazteei dagokienez, funtsezko bi alderdi hauteman dira. Hasteko, Ttipi-Ttapa eta haren gisako programak eraginkorrak dira zahartzaroaren beste irudi bat sortzeko, eta nagusiekin lotu ohi diren estereotipoak murrizteko (2, 49-58).

Bigarrenik, belaunaldi arteko proiektuetan parte hartzeak udalerriko ondare kulturala hobeto ezagutzen laguntzen die (59); eskolako ikaskuntza-prozesua bizitza errealerara hurbiltzen laguntzen die, ikaskuntza-prozesuak aberasten ditu eskolan bertan eta kanpoan (33), eta belaunaldi arteko solidaritatea sustatzen du (59-62).

2.4. Pertsonen garrantzia eta lankidetzaren eta laguntza boluntarioko jarreraren garrantzia

Antolaketaren esparruan, honako balio hauek aipatzen dira: elkarrekikotasuna, laguntza solidarioa eta gizarteratzea (adibidez, migratzaileena eta aniztasun funtzionaleko pertsonena), eta askok aipatu dute gizarterako erabilgarritzat jotzen den proiektu bateko kide sentitzearen garrantzia.

Antolaketa-lanekiko dedikaziozko jarrera horiek izen bereziekin lotzen dira maiz; osasun publikoko, udal bateko edo elkarte bateko teknikari jakin batekin, boluntario batekin, edo lehen mailako arretako langile batekin. Izen berezi horiek (verbatimetan anonimo gisa jarri dira) agerian uzten dute hurbileko lidergoari eta erantzukizunari eta pertsonen banakako konpromisoari garrantzi handia ematen ziela, ordezkatzeko duten erakundeaz edo elkartez harago.

Hori horrela, emaitzak osasun-alorreko onuren hartzaile pasiboa den pertsonaren esferaz harago doaz, eta esku-hartze horien dimentsio interaktiboa eta soziala azpimarratzen dira (17, 63). Jarrera eta portaera solidarioak, laguntzakoak eta adin edo jatorri desberdinetako pertsonak batzekoak garatzeak, eta horiek asebetetze-iturri gisa ikusteak, berretsi egiten dute horrek kapital soziala (64) gisa duen garrantzia, eta ekitatean eta kohesioan dituzten eragin potentzialak (65).

2.5. Tokiko berezitasunetara eta pertsonen gaitasunetara eta prestasunera irekitzea, egokitzea eta malgutasunez jokatzeko

Ttipi-Ttapa antolaketa-lan irekian oinarritzen dela jotzen da, herri bakoitzeko autonomia eta berezitasunak errespetatzen dituen lan batean, bai eta parte-hartzaileen prestasuna eta gaitasunak ere; horren guztiaren emaitzatzat jotzen da Ttipi-Ttapa. Halaber, harrotasunez aitortzen da lana herriko zenbait eragileren eta elkarteren inplikazio antolatuen eta borondatezkoaren emaitza dela.

Udalerrin bakoitzean, aurretiko udal-dinamikak, konpromiso politikoak, erakundeak eta abar errespetatzen dira. Gainera, antolaketan, ibilbideak egokitu egiten dira maiz, formalizatu, hamaiketako txikiak oso erakargarriak dira, ibilaldiak beste jarduerak batzuekin txandakatzen dira... Hori guztia lagungarria da parte-hartzaileak ez diskriminatzeke eta haien autoestimua hobetzeko, eta Ttipi-Ttapa haien agendetan sartzeko errutina gisa. Aurkikuntza horiek berretsi egiten dute jarduerak komunitarioek pertsona nagusien osasunean eta ongizatean dituzten eragin interaktiboak eta gainjartzea, (17, 66) bai eta zenbait antolaketa-alderdiaren garrantzia ere, hala nola autonomiarena, malgutasunarena eta jarraitutasunarena.

2.6. Funtzionatzen eta aurrera egiten duenaren zirkulu mesedegarria

Antolaketa-dinamikekin lotutako emaitzek esku-hartzeko prozesuen benetako funtzionamenduari buruzko eztabaidan garrantzitsua den beste esparru bat zedarrizten dute(18, 63). Ekimenak «nola», «nork» eta «norentzat» egiteaz eta landa-lanaz gainera, Ttipi-Ttaparen arrakastaren eta jarraitutasunaren funtsezko dimentsioak dira. Horrek berretsi egiten du behar-beharrezkoa eta egingarria dela diziplina anitzeko eta sektore anitzeko parte-hartzea, leku bakoitzeko (12) eta eragile bakoitzaren berezitasunak errespetatzen dituen parte-hartze bat, (67) eta oso garrantzitsua dela hurbileko lidergoak, landa-lanarekin konprometituak, sustatzea. Erakunde arteko laguntzak, beraz, koherentea izan beharko luke eskakizun horiekin, formalismoez harago (62).

2.7. Erakunde arteko koordinazioa eta herritarren autonomia errespetatzea

Tokiko esparruan, osasun-alorreko jarduera komunitarioak egiteko, komunitate osoaren parte-hartzea behar da; administrazioak (tokikoa edo beste herri-administrazio batzuk), baliabide profesionalak eta teknikoak eta herritarrak (gizarte-elkarteak zein beste pertsona batzuk) (13). Testuinguru horretan, osasun-alorreko langileek jarduerak sustatu ahal izango dituzte, edo komunitateko beste eragile batzuek sustatutakoak babestu. Horietan jakintza eta metodologia eskaintzea dagokie. Eta jarduera horiek komunitatearen osasunerako dakartzaten onurei buruz sentsibilizatzea. Hori guztia, jarduera komunitarioen diseinuan eta ebaluazioan lagunduz, eta komunitatean dauden osasundesberdintasunak areagotu gabe; aitzitik, horiek murrizten ahaleginduz (68).

Aipatu da garrantzitsua dela erakunde-eragile giltzarriak (Osasun Publikoa eta Osakidetza) proiektuaren sustapenean eta antolaketan inplikatzeko eta laguntzaile izatea, baina egiaztatuta gelditu da toki-administrazioak hartu behar duela lidergoa, programa arrakastatsua eta iraunkorra izan dadin.

Erakundeek osasunaren alorrean egiten dituzten esku hartzeko programak profesionalak zuzenduak, diseinatuak eta prestatuak izan ohi dira. Alabaina, azterlan honek berretsi egin du aurrez egindako antzeko beste programa batzuetan ondorioztatutakoa; hots, oso garrantzitsua dela parte-hartzaileei autonomia ematea programa komunitarioen antolaketan eta diseinuan, horrek programaren parte direla sentiarazten dielako (69), eta, horrela, programaren iraunkortasuna bermatzen delako (70). Honako elementu hauek ikusten dira esanguratsu gisa: ahalduntzen duen ingurune bat, gizatasunez tratatua izatea eta norbanakoarekiko errespetua, programaren lidergoa eta diseinua (70, 71). Horrela, komunitateak programaren diseinuan parte hartzeak orientabidea eman dezake esku-hartze berritzaileetan, eta jende ugariaren atxikimendua eta programaren iraunkortasuna lortzen lagundu (71).

Gainera, garrantzitsua da osasunaren alorreko langileak eta toki-erakundeak ohartzea ekimen komunitario hauetatik osasunaren dimentsio berriak sortzen direla, eta garrantzitsua dela koordinazio eraginkorra egitea zerikusia duten eragile guztien artean, eta bakoitzaren papera zehaztea, programa iraunkorra izan dadin. Mota honetako programen antolaketak komunitatea jarri behar du sarearen erdigunean, eta, gainera, lan partekatua zehaztu behar du, lortu nahi diren helburuak lortzeko.

3. Hobekuntza-erronkak

3.1. Ariketa fisikoaz eta haren proiektio publikoaz harago sortutako «dimentsio osasungarri» berriei buruz gogoeta egiteko beharra

Azterlan honetan zehar egiaztatu den eran, ariketa fisikoaz harago sustatzen diren dimentsio osasungarriak dira honelako ekimenen oinarrian dauden ardatzak: lagunduta egotea eta gainerakoekin batera poztasun-uneak bizitzea, etxetik edo ohiko egoitzaatik atera ahal izatea, laguntzeak eta gizarteratzea sustatzeak dakarren elkarrekiko asebetetzea. Horiek guztiak osasun kolektiboaren dimentsioak dira, eta kontuan hartu behar dira Ttipi-Ttaparen moduko osasun komunitarioa sustatzeko programen diseinuan, iraunkortasunean eta ebaluazioan.

Azken urteotan, Osasun Publikoko agendak aldatuz doaz, ikuspegi zabalago baterantz hurbilduz, baldintza sozialak eta egiturazkoak kontuan hartzen dituen ikuspegi baterantz, eta gero eta onartuago dago pertsonen bizi-baldintzen testuinguruan kontuan hartu behar dela (72). Pertsonen banakako beharrak eta bizi-baldintzak ez badira ondo ulertzen, areagotu egin daitezke, potentzialki, osasun-alorreko desberdintasunak (73).

Teoriaren eta metodologiaren ikuspegitik, maila fisikoaren, mentalaren eta sozialaren arteko interakzioekin eta gainjartzearekin lotuta bildutako ebidentziek agerian uzten dute zabaldu egin behar dela osasunaren sustapenetako ebaluazioen ikuspuntua (74). Askotan, ikerketaren diseinuan gainjartze horiek kontuan ez hartzeko arriskua izaten da, baina paper giltzarria dute osasun-sustapeneko jardueren eraginak ulertzean.

Aztertutako emaitzek genero, jatorri edo gaitasun-maila desberdinetako pertsonen adierazitako bizipenak laburbiltzen dituzte; beraz, egokia izango litzateke analisi osagarriak egitea, bai eta etorkizuneko ikerketak populazio-talde horiei bideratuta diseinatzea ere.

3.2. Osasun komunitarioa sendotzea, erakunde-mailako eta erakunde arteko mailako epe luzeko estrategia dinamiko gisa

Emaitza horiek adierazten digute osasun komunitarioko programetan aktiboki parte hartzeak, parte-hartzaileen aldetik oso balorazio ona jasotzeaz gainera, oro har, kapital soziala eta kohesioa hobetzea dakarrela. Horrek, aldi berean, zerikusia duten pertsonen osasun-pertzepzioa nabarmen hobetzea dakar, bereziki gehien behar dutenen artean (75). Hortaz, orain arte lehen mailako arretako eta osasun-sistema osoko ohiko jarduera bete izan duten esku-hartze prebentibo askotarikoak birpentsatu behar dira, ez baita horien efizientzia, ekitatea eta egokitasuna zorrozki ebaluatu (76). Osasun komunitarioa sendotu behar da, erakunde-mailako eta erakunde arteko mailako epe luzeko estrategia dinamiko gisa.

Illo horretatik, erakundeek onartu behar dute programa horiek benetan eragin positiboa dutela


komunitateen osasunean, eta haien iraunkortasuna bermatu behar dute. Horretarako, benetako apustua egin behar da, konpromiso politiko errealez, eta baliabideak jarri behar dira mahai gainean, giza baliabideak zein finantzarioak, jardueren kalitatea ziurtatu ahal izateko, eta jendeak ez dezan utzi, etsita, ekimenari eusteko ezintasunagatik.

Gainera, esku-hartzeak aitortu eta ebaluatu egin behar dira. Ebaluatze hori esku-hartzearen kalitatearen arabera egin behar da, ez kantitatearen arabera; izan ere, bestela, parte-hartzaileen artean osasun-desberdintasunak areagotzeko arriskua dago (73).

3.3. Parte hartzen duten boluntarioen, profesionalen eta eragileen lan komunitarioaren aitortza eta ordezkaritza handiagoa

Azterlan honen emaitzetatik ondorioztatzen da boluntarioen lanari oso balorazio positiboa ematen diotela bai parte-hartzaileek, bai erakundeek, bai eta gainerako eragileek ere; jarduera gauzatzeko ezinbestekotzat jotzen da. Boluntarioak askotarikoak dira; elkarreentako boluntarioak, migratzaileak eta ikasleak. Jardueraren diseinuan eta antolaketan giltzarri direla ere onartzen da.

Alabaina, azpimarratzekoa da osasun-alorreko langileek aitortza eskasa jasotzen dutela beren erakundeetatik; horrek etsipena sentitzea eta programa uztea eragin dezake. Oso garrantzitsua da erakundeek behar beste baliabide bideratzea langile horiei laguntzeko, eta, orobat, ekimena ohiko jarduera gisa sartzeari haien lan-agendetan, aitortua izatea, eta ez oinarritzea noraezeko ekintza boluntaristetan (68).



ONDORIOAK


Osasunaren hobekuntzaren alorreko erakunde arteko lankidetzak, beraz, haren ebaluazioan, kontuan hartu beharko luke testuinguru eta eragile zehatzekin lotutako prozesuen konplexutasuna, asmoen aitortzaz harago (67, 77). Hori bereziki garrantzitsua da osasun komunitarioaren sustapenaren alorrean, azterlan honek berretsi duen eran, ezinbesteko baldintza delako Osasun Publikoaren, herri-administrazioaren, udalen eta herri-elkarteen arteko aliantza, bai eta zalantzarik gabeko erronka ere, haren oraingo eta etorkizuneko bilakaeran (68). Egindako ebaluazio-lanaren ostean, ondorioztatu dugu Ttipi-Ttapak oso balorazio positiboa jasotzen duela dimentsio guztietan, zirikusia duten parte-hartzaileen, elkarten eta erakundeen aldetik. Parte hartzen duten eragileek hautemandako osasunaren gaineko onurak askoz harago doaz ariketa fisikoa sustatzeak dakartzan horietatik, eta eragin nabariak dituzte interakzio eta kohesio sozialean.

Ebaluatutako prozesuen konplexutasunak eskakizun metodologikoak, antolaketakoak eta kolaboratiboak dakartza.

Ttipi-Ttapak osasun komunitarioaren dimentsio sozialetan duen garrantzia aintzat hartuta, ezinbestekoa da helburuak eta jarduerak komunitate-prozesuan gertatzen diren aldaketetara berregokitzea, ekimena iraunkorra izan dadin eta zabalduz joateko.

Osasun Publikoak paper garrantzitsua izan dezake, eta izan behar du, osasunaren sustapenean, osasun-alorreko eta bestelako elkarten eta erakundeen arteko beharrezko inplikazioan eta lankidetzan.

Ebaluazio-lanak eta ikerketa-ikaskuntza prozesuak agerian utzi dituzte Ttipi-Ttapan sendotu eta hobetu beharreko zenbait arlo, eta baieztatu egin dute parte-hartzea eta metodologia-aniztasuna egokiak direla osasun-sustapenaren alorreko esku-hartzeak ebaluatzeko.



BIBLIOGRAFIA

1. Eusko Jaurlaritz. Osasuna, pertsonen eskubidea, guztion ardura. 2013-2020 aldirako Euskadirako Osasun-politikak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, Osasun Saila; 2013. Eskuragarri hemen: <http://goo.gl/8sDxR0>.
2. Sánchez, M., Díaz, P., López, J., Pinazo, S. eta Sáez, J. (2008). INTERGEN. Descripción, análisis y evaluación de los programas intergeneracionales en España. Modelos y buenas prácticas. Laburpen exekutiboa. Hemendik berreskuratua: <http://www.redintergeneracional.es/documentos.php>.
3. Daskalopoulou C, Stubbs B, Kralj C, et al. Physical activity and healthy ageing: a systematic review and meta-analysis of longitudinal cohort studies. *Ageing Res Rev.* 2017;38:6–17.
4. 2018 Physical Activity Guidelines Advisory Committee. Older adults. Physical activity guidelines Advisory Committee Scientific Report. Washington, DC:Department of Health and Human Services; 2018. F9-1-F9-51.
5. Resolución WHA62.14 Reducir las inequidades sanitarias actuando sobre los determinantes sociales de la salud, 62. Osasunaren Mundu Biltzarra http://apps.who.int/gb/ebwha/pdf_files/A62/A62_R14-sp.pdf.
6. Zubala A, MacGillivray S, Frost H, et al. Promotion of physical activity interventions for community dwelling older adults: a systematic review of reviews. *PLoS One.* 2017;12:e0180902.
7. Baker PR, Francis DP, Soares J, et al. Community wide interventions for increasing physical activity. *Cochrane Database Syst Rev.* 2015:CD008366.
8. Sánchez A, Bully P, Martínez C, et al. Effectiveness of physical activity promotion interventions in primary care: a review of reviews. *Prev Med.* 2015;76 Suppl:56–67.
9. Osasunaren Mundu Erakundea. Physical activity strategy for the WHO European Region 2016-2025. Copenhagen: World Health Organization, Regional Office for Europe; 2016.
10. Hacia rutas saludables. Guía para el diseño de un Plan de Rutas Saludables. 1. bertsioa. Madril: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa – Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa; 2018.
11. Euskadi.eus. MUGIMENT, gizarte aktiboagoa sortzeko ekimena. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/albistea/2016/mugiment-gizarte-aktiboagoa-sortzeko-ekimena/>.
12. Haggis C, Sims-Gould J, Winters M, et al. Sustained impact of community-based physical activity interventions: key elements for success. *BMC Public Health.* 2013;13:892.
13. Benito A, Nuin B, Sorarrain Y, et al. Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila, Eusko Jaurlaritz; 2016.

14. Terol Claramonte M, Azpeitia Seron ME, Cabeza Irigoyen E, et al. Diálogo sobre la implementación local de la Estrategia de Promoción de la Salud y Prevención en el Sistema Nacional de Salud. 2018ko SESPAS txostena. *Gac Sanit.* 2018;32 Supl 1:59–62.
15. Moran M, Van CJ, Hercky-Linnewiel R, et al. Understanding the relationships between the physical environment and physical activity in older adults: a systematic review of qualitative studies. *Int J Behav Nutr Phys Act.* 2014;11:79.
16. Franco M, Díez J, Gullón P, et al. Towards a policy relevant neighborhoods and health agenda: engaging citizens, researchers, policy makers and public health professionals. 2018ko SESPAS txostena. *Gac Sanit.* 2018;32 Supl 1:69–73.
17. Jolley G. Evaluating complex community-based health promotion: addressing the challenges. *Eval Program Plann.* 2014;45:71–81.
18. Moore GF, Audrey S, Barker M, et al. Process evaluation of complex interventions: Medical Research Council guidance. *BMJ.* 2015;350:h1258.
19. Wallerstein N, Duran B. Community-based participatory research contributions to intervention research: the intersection of science and practice to improve health equity. *Am J Public Health.* 2010;100 Suppl 1:40–6.
20. Heron J, Reason P. The practice of co-operative inquiry: research 'with' rather than 'on' people. Hemen: Reason P, Bradbury H, editoreak. *Handbook of action research. Participative inquiry and practice.* Londres: Sage; 2001. 179–88. or.
21. Morse JM, Niehaus L. Mixed methods design. Hemen: Principles and procedures. Walnut Creek. CA: Left Coast Press; 2009. 194. or.
22. Gendron S. Transformative alliance between qualitative and quantitative approaches in health promotion research. Hemen: Rootman I, Goodstadt M, Hvndman B, et al, editoreak. *Evaluation in health promotion. Principles and perspectives.* Copenhagen: World Health Organization, Regional Office for Europe; 2001. 107–21. or.
23. Healey M. Linking research and teaching: exploring disciplinary spaces and the role of inquiry-based learning. Hemen: Barnett R, editorea. *Reshaping the university: new relationships between research, scholarship and teaching.* Maidenhead: McGraw Hill /Open University Press; 2005. 67–78. or.
24. Ulin PR, Robinson ET, Tolley EE. Qualitative methods in public health. A field guide for applied research. San Frantzisko: Jossey-Bass; 2005. 318. or.
25. Savin-Baden M, Howell C. Qualitative research. The essential guide to theory and practice. New York: Routledge; 2013. 569. or.
26. Monistrol O. Técnicas de generación de información en investigación cualitativa(I). Hemen: Calderón C, Conde F, Fernández de Sanmamed MJ, et al., editoreak. *Curso de introducción a la investigación cualitativa. Máster de Investigación en Atención Primaria.* Bartzelona: semFYC, Universitat Autònoma de Barcelona, Fundació Doctor Robert; 2016. Hemen eskuragarri: <https://www.semfyec.es/biblioteca/ud4-curso-de-introduccion-la-investigacion-cualitativa-en-atencion-primaria/>.

27. Braun V, Clarke V. What can «thematic analysis» offer health and wellbeing researchers? *Int J Qual Stud Health Well-being*. 2014;9:26152.
28. Flick U. *Managing quality in qualitative research*. Londres: Sage; 2007. 156. or.
29. Calderón C. Assessing the quality of qualitative health research: criteria, process and writing. *Forum Qualitative Sozialforschung/Forum: Qualitative Social Research*. 2009;10. 17. art. Hemen eskuragarri: <http://nbn-resolving.de/urn:nbn:de:0114-fqs0902178>.
30. Calderón C. El papel de la reflexividad en la investigación cualitativa en salud. *Revista Clínica Electrónica en Atención Primaria*. 2011;19. 2. artikulua. Hemen eskuragarri: <http://www.fbjoseplaporte.org/rceap/articulo2.php?idnum=19&art=02>
31. Cofiño R, Lopez-Villar S, Suarez O. How to work with local communities to improve population health: big data and small data. *J Epidemiol Community Health* 2017 Jul;71(7):657-9.
32. Sobrino C, Hernán M, Cofiño R. ¿De qué hablamos cuando hablamos de «salud comunitaria»? 2018ko SESPAS txostena, *Gaceta Sanitaria*, Volume 32, Supplement 1, 2018, 5-12. or., ISSN 0213-9111, <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2018.07.005>. (<http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0213911118301547>).
33. Stancliffe, R. J., Bigby, C., Balandin, S., Wilson, N. J., & Craig, D. (2012). Transition to retirement and participation in inclusive community groups using active mentoring: An outcomes evaluation with a matched comparison group. Manuscript submitted for publication
34. Forrester-Jones,R., Carpenter,J., Coolen-Schrijner,P., Cambridge,P., Tate,A., Beecham,J.,et al.(2006). The social networks of people with intellectual disability living in the community 12 years after resettlement from long-stay hospitals. *Journal of Applied Research in Intellectual Disabilities*,19: 285–295
35. Johnson, H., Douglas,J., Bigby,C. & Iacono,T. (2012). Social interaction with adults with severe intellectual disability: Having fun and hanging out. *Journal of Applied Research in Intellectual Disabilities*,25: 329–341.
36. Johnson, H., Douglas,J., Bigby,C. & Iacono,T. (2009). Maximizing community inclusion through main stream communication services for adults with severe disabilities. *International Journal of Speech-Language Pathology*,11(3): 180–190.
37. Mahar, A.L., Cobigo,V. ,& Stuart,H.(2013). Conceptualizing belonging. *Disability & Rehabilitation*,35:1026–1032.
38. Power, A.(2013). Making space for belonging: Critical reflections on the implementation of personalized adult social care under the veil of meaningful inclusion. *Social Science & Medicine*, 88: 68–75.
39. Mansell,J., Elliott,T., Beadle-Brown,J., Ashman,B. & Macdonald,S. (2002). Engagement in meaningful activity and active support of people with intellectual disabilities in residential care. *Research in Developmental Disabilities*,23: 342–352.

40. Berry, J.W. (1997). Immigration, acculturation, and adaptation. *Applied Psychology: An International Review*, 46:5–34 11
41. Birman, D. & Simon, C.D. (2014). Acculturation research: Challenges, complexities, and possibilities. Hemen: Leong FTL. (Editoreak). *APA Handbook of Multicultural Psychology: Vol. 1. Theory and Research*. Washington, DC: American Psychological Association; 207–30 12 or.
42. Christens, B.D., Speer, P.W. & Peterson, N.A. (2016). Assessing community participation: Comparing self-reported participation data with organizational attendance records. *American Journal of Community Psychology*;57(3–4):415–25. 33
43. Hindhede, A.L. & Aagaard-Hansen J. (2017). Using social network analysis as a method to assess and strengthen participation in health promotion programs in vulnerable areas. *Health Promotion Practice*;18(2):175–83. 34
44. Poortinga W. (2012). Community resilience and health: The role of bonding, bridging, and linking aspects of social capital. *Health & Place*;18(2):286–95. 35
45. Talo, C., Mannarini, T. & Rochira A. (2014). Sense of community and community participation: A meta-analytic review. *Social Indicators Research*; 117:1–28 36
46. Dupont, C. & Letesson, M. (2010). Comment développer une action intergénérationnelle? Brusela: De Boeck.
47. Ostir, G.V., Ottenbacher, K.J. & Markides, K.S. (2004). Onset of frailty in older adults and the protective role of positive affect. *Journal of Psychology and Aging*, 19 (3), 402-408.
48. MacCallum, J., Palmer, D., Wright, P., Cumming-Potvin, W., Northcote, J., Booker, M. & Tero, C. (2006). Community building through intergenerational exchange programs. Australia: National Youth affairs Research Scheme.
49. Abrams, D., Eller, A. & Bryant, J. (2006). An age apart: The effects of intergenerational contact and stereotype threat on performance and intergroup bias. *Psychology and Aging*, 21(4), 691-702.
50. Allred, G.B. & Dobson, J.E. (1987). Remotivation Group Interaction: increasing children's contact with elderly. *Elementary school Guidance and Counselling*, 21 (3), 216- 220.
51. Carstensen, L., Mason, S. & Caldwell, E. (1982). Children's attitudes toward the elderly: An intergenerational technique for change. *Educational Gerontology*, 8, 291-301.
52. Caspi, A. (1984). Contact hypothesis and inter-age attitudes: A field study of cross-age contact. *Social Psychology Quarterly*, 47, 74-80
53. Knapp, J.L. & Stubblefield, P. (2000). Changing students' perceptions of aging: The impact of an intergenerational service learning course. *Educational Gerontology*, 26, 611-621.
54. Kocarnik, R. A. & Ponzett, J.J. (1986). The influence of Intergenerational contact on child care participants' attitudes toward the elderly. *Child and youth Care forum. Journal of Research and Practice in Children's Services*, 15(4), 244-250.

55. Parnell, K. (1980). Young and old together: A literature review. *Childhood Education*, 56, 184-188.
56. Peacock, E.W. & Talley, W.M. (1984). Intergenerational contact: a way to counter ageism. *Educational Gerontology*, 10(1), 13-24.
57. Rebok, G.W.; Carlson, M. C.; Glass, A.; McGill, S.; Hill, J.; Wasik, B.; Ialongo, N.; Frick, K. D.; Fried, L.P. & Rasmussen, M.D. (2004). Short-Term Impact of Experience Corps Participation on Children and Schools: Results a Pilot Randomized Trial. *Journal of Urban Health*, 81(1), 79-93.
58. Rosebrook, V. (2006). Research indicates: Intergenerational interactions Enhance Young Children's Personal/Social Skills. *The Generations United Magazine*, 11(2), 5.1
59. Bostrum, A.K., Hatton-Yeo, A., Ohsako, T. eta Sawano, Y. (2001). Una valoración general de iniciativas de programas intergeneracionales en los países involucrados. Hemen: Hatton-Yeo eta T. Ohsako (Ed.), *Programas Intergeneracionales: política pública e implicaciones de la investigación*. (3-7. or.). Hanburgo: Instituto de la UNESCO para la Educación.
60. Hatton-Yeo, A. Klerq, J. Ohsako, T. eta Newman, S. (2001). Política pública y recomendaciones para la investigación: una perspectiva internacional. Hemen: A. Hatton- Yeo eta T. Ohsako. (Ed.) *Programas Intergeneracionales: política pública e implicaciones de la investigación. Una perspectiva internacional* (9-17. or.). Hanburgo: UNESCOren Hezkuntza Institutua.
61. Lambert, D., Dellmann-Jenkins, M. & Fruit, D. (1990). Planning for contact etween the generations: An effective approach. *The Gerontologist*, 30, 553-556.
62. MacCallum, J., Palmer, D., Wright, P., Cumming-Potvin, W., Northcote, J., Booker, M. & Tero, C. (2006). Community building through intergenerational exchange programs. Australia: National Youth affairs Research Scheme.
63. Bodstein R. The complexity of the discussion on effectiveness and evidence in health promotion practices. *Promotion & Education* 2007;14 (suppl. 1):16-20.
64. Cramm JM, van Dijk HM, Nieboer AP. The importance of neighborhood social cohesion and social capital for the well being of older adults in the community. *Gerontologist* 2013 Feb;53(1):142-52.
65. Coen SE. Connecting qualitative research on exercise and environment to public health agendas requires an equity lens. *Health Place* 2017 Nov 14.
66. Greenhalgh T, Papoutsi C. Studying complexity in health services research: desperately seeking an overdue paradigm shift. *BMC Medicine* 2018;16:95 <https://doi.org/10.1186/s12916-018-1089-4>.
67. Hayes SL, Mann MK, Morgan FM, Kitcher H, Kelly MJ, Weightman AL. Collaboration between local health and local government agencies for health improvement. *Cochrane Database Syst Rev* 2011 Jun 15;(6):CD007825.
68. Cofiño R, Pasarin MI, Segura A. ¿Cómo abordar la dimensión colectiva de la salud de las personas? 2012ko SESPAS txostena. *Gac Sanit* 2012 Mar;26 Suppl 1:88-93.

69. Hwang J1, Wang L1, Siever J1, Medico TD2, Jones CA1. Loneliness and social isolation among older adults in a community exercise program: a qualitative study. *Aging Ment Health*. 2018 Mar 15:1-7.
70. Farrance, C, Tsofliou, F, Clark, CJ. Evaluating the views of participants and adherence rates of community based group exercise interventions: A mixed methods systematic review. *Physiotherapy*. 2015;101 (Suppl 1):e374–e375.
71. Farrance C1, Tsofliou F2, Clark C3. Adherence to community based group exercise interventions for older people: A mixed-methods systematic review. *Prev Med*. 2016 Jun;87:155-166.
72. Cohn S. From health behaviours to health practices: an introduction. *Sociol. Health Illn*. 2014; 36:157-162 or.
73. Matthews A., Brennan G., Kelly P., Mcadam C., Mutrie N., Foster C. Don't wait for them to come to you, you go to them. A qualitative study of recruitment approaches in community based walking programmes in the UK. *BMC Public Health*. 2012;12:635.
74. Cattan M, White M, Bond J, Learmouth A. Preventing social isolation and loneliness among older people: a systematic review of health promotion interventions. *Ageing and Society* 2005;25:41-67.
75. Williams K.T.-M., Esther, Shaw K. 2011. Becoming a Healthy Borough: Tackling the Social and Environment Casus of Obesity in Tower Hamlets. <http://www.instituteofhealthequity.org/projects/tackling-the-social-and-environmental-causes-of-obesity-in-tower-hamlets>.
76. Vos T, Barendregt J, Mihalopoulos C, et al. Assessing cost-effectiveness in prevention. 2010.
77. Greenhalgh T, Papoutsi C. Studying complexity in health services research: desperately seeking an overdue paradigm shift. *BMC Medicine* 2018;16:95. <https://doi.org/10.1186/s12916-018-1089>.